

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra**

**Cuenta General del Territorio Histórico de
Bizkaia**

2017





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	11
II.2 Kontuen gaineko iritzia.....	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	13
III.1 Aurrekontua, kontu orokorra eta kontabilitatea.....	13
III.2 Kontratazioa.....	13
III.3 Diru-laguntzak.....	15
III.4 Beste batzuk.....	15
IV. FINANTZAREN ANALISIA.....	16
V. URTEKO KONTUAK.....	20
V.1 Bizkaiko Foru Aldundia.....	20
V.2 Gizarte urgazpenerako foru erakundea.....	25
V.3 Foru enpresa-erakunde publikoak.....	28
V.4 Foru merkataritzako sozietateak.....	29
V.5 Foru fundazioak.....	35
ERANSKINAK.....	37
A.1 Araudi ezargarria.....	37
A.2 Aurrekontuko aldaketak.....	37
A.3 Langileen ordainsariak.....	38
A.4 Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	39
A.4.1 Erakunde konpromisoak.....	40
A.5 Diru-sarrerak, zerga-zordunak eta hornidurak.....	41
A.6 Finantza inbertsioak epe luzera eta finantza aktiboak.....	43
A.7 Administrazioko kontratazioa.....	44



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.8	Diru-laguntzen analisia	46
A.8.1	Diru-laguntza izendunak	46
A.8.2	Diru-laguntza zuzenak	47
A.8.3	Deialdi bidez emandako diru-laguntzak	47
A.8.4	Aurreko ekitaldietan emandako diru-laguntzak	48
A.9	Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea	49
A.9.1	Langileen ordainsariak	49
A.9.2	Administrazioko kontratazioa	49
A.10	Enpresa Sektore Publikoa	50
A.10.1	Langileria-gastuak	50
A.10.2	Kontratazioa.....	51
A.11	Bizkaiko Lurralde Historikoaren kontu bateratuak	55
ALEGAZIOAK		59
ABREVIATURAS		93
I. INTRODUCCIÓN.....		95
II. OPINIÓN.....		97
II.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad	97
II.2	Opinión sobre las Cuentas.....	98
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN.....		99
III.1	Presupuesto, Cuenta General y Contabilidad.....	99
III.2	Contratación	99
III.3	Subvenciones	101
III.4	Otros.....	101
IV. ANÁLISIS FINANCIERO		102
V. CUENTAS ANUALES.....		106
V.1	Diputación Foral de Bizkaia	106
V.2	Instituto Foral de Asistencia Social	111
V.3	Entidades públicas empresariales forales	114



V.4	Sociedades mercantiles forales	115
V.5	Fundaciones forales.....	121
ANEXOS	123
A.1	Normativa aplicable	123
A.2	Modificaciones presupuestarias	123
A.3	Remuneraciones de personal	124
A.4	Transferencias y subvenciones concedidas	125
A.4.1	Compromisos institucionales	126
A.5	Ingresos, deudores tributarios y provisiones	127
A.6	Inversiones financieras a largo plazo y activos financieros	129
A.7	Contratación administrativa	130
A.8	Análisis de subvenciones.....	132
A.8.1	Subvenciones nominativas.....	132
A.8.2	Subvenciones directas	133
A.8.3	Subvenciones concedidas mediante convocatoria	133
A.8.4	Subvenciones concedidas en ejercicios anteriores	134
A.9	Instituto Foral de Asistencia Social	135
A.9.1	Remuneraciones de personal.....	135
A.9.2	Contratación administrativa.....	135
A.10	Sector Público Empresarial	136
A.10.1	Gastos de personal.....	136
A.10.2	Contratación	137
A.11	Cuentas consolidadas del Territorio Histórico de Bizkaia	141
ALEGACIONES	145

Vitoria-Gasteiz, 2019ko irailaren 26a

Vitoria-Gasteiz, 26 de septiembre de 2019





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

AKSP	Arrisku-kapitaleko Sozietatea PYME.
AMAS	Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta emateko Sistema.
AOFATB	Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren testu bategina, abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemaile bidez onartutakoa.
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
BEK	Bizkaiko Enpresen Konfederazioa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko Lurralde Historikoa.
BOS	Bilboko Orkestra Sinfonikoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EEAA	Erakunde autonomoak.
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea.
ELA	Estatuko Loteriak eta Apustuak.
Elkarkidetza	Elkarkidetza Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea.
ESP	Enpresa Sektore Publikoa.
FA	Foru Araua.
FD	Foru Dekretua.
FEEP	Foru enpresa-erakunde publikoa.
GUFE	Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea erakunde autonomoa.
PFEZ	Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga.
SPKLTB	Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 14koa, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutakoa.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.
ZME	Zerbitzuaren Mailari buruzko Erabakia.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Lan Programan erabakitakoari jarraikiz, Bizkaiko Lurralde Historikoko 2017ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

Alderdi hauek aztertu ditu fiskalizazioak:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerak.
- Kontularitzakoak: Foru sektore publikoko kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu.
- Foru sektore publikoaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.
- Lanean ez da jaso gastuaren eraginkortasunari eta efikaziari buruzko analisia. Nolanahi dela ere, kudeaketan eta barne kontrolean azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

BLHren Kontu Orokorra Bizkaiko Foru Aldundiaren, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen eta Enpresa Sektore Publikoaren kontuek osatzen dute (ikus BLHren Kontu Orokorra www.bizkaia.eus helbidean).

Hona hemen Enpresa Sektore publikoa osatzen duten foru enpresa publikoen, foru merkataritzako sozietateen eta foru fundazioen xehapena:

FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK

ENTITATEA	XEDEA
1. Estatuko Loteria eta Apustuen Bizkaiko Ordezkaritza	Estatuko Loteria eta Apustu Erakunde Nazionalaren Bizkaiko ordezkaritza.
2. Bizkaiko Tutoretza Erakundea	BLHn bizi direnez gero, desgaituak dauden adinekoen tutoretza bere gain hartu eta aldundiak tutoretzapean dituen adingabeen ondasunak administratzeko ardura du.
3. BizkaikOA	Kultur ondarea zabaltzera zuzendutako jardueren kudeaketa, museoen eta azpiegituren kudeaketa osoa eta ondare arkeologikoa zabaltzea.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

FORU MERKATARITZAKO SOZIETATEAK

SOZIETATEA	% PARTAIDETZA	FUNDAZIOAREN HELBURUA
1. APARKABISA, Bizkaiko Garraio Gunea AB.....	79,58	Garraio zentroa eta kamioen aparkalekua. Aparkabisa Bizkaiko Garraio Gunea
2. Azpiegiturak SAU	100	Era guztietako azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea.
3. Bizkaiko Basalan SA.....	100	Basoko lanak eta natura zaintzeko lanak egitea.
4. Beaz SAU.	100	Enpresen lehiakortasuna garatu eta sustatzea, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzaile bihurtzeko.
5. Euskalduna Jauregia SA.....	100	Musika eta kongresu jauregia eraikitzea eta kudeatzea.
6. Garbiker SA.....	100	Hondakin solidoak tratatzea.
7. INTERBIAK, Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea SA		100 Bide azpiegiturak eraikitzea, zaintzea eta haiei buruzko azterlanak eta proiektuak egitea.
8. Lantik SA.....	100	Foru administrazioaren informatika zerbitzuak.
9. Seed Bizkaiko Kapitala SA Tipo Itxiko Inbertsio Entitateen sozietate kudeatzailea	50,64	Arrisku kapitaleko funtsak eta ondareak kudeatzea.
10. Seed Bizkaiko Kapitala Mikro, SCR PYME SA.....	66,67	Mikro-finantzaketaren garapena.
11. Zugaztel SA.	100	Grabazioa, eskaneatzea eta call center-a.

(*) 2017an eratutako sozietatea.

(**) 2017ko abenduaren 31n BFAk haren kapital sozialean parte hartzen du Azpiegiturak SAUren bitartez..

FORU FUNDAZIOAK

FUNDAZIOA	% PARTAIDETZA	FUNDAZIOAREN HELBURUA
1. Azkue.....	75	Teknologia baliatuz euskara sustatzea eta euskarazko proiektu, ekintza eta material digitalak garatzea.
2. Biscaytik.....	100	Komunikazioaren teknologietan ezagutza sustatzea, hiritarrak online bidez hurbiltzea indartzearen.
3. Bizkaia-Bizkaialde.....	100	Bizkaiko kirolaren sustapen eta garapena, lehenasuna emanez errendimenduko kirolari.
4. Juan Crisóstomo de Arriaga- BOS.....	66,67	Bilboko Orkestra Sinfonikoaren zuzendaritza, mantentze-lana, zaintza eta sustapena.

Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren testu bateginean agindutakoari jarraikiz, BLHren Kontu Orokorrak informazio modura Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren Balantzea eta Galera eta Irabazien Kontua besarkatzen dituen eranskina barne hartu du. Kontu hauek ez dira Txosten honetan fiskalizatu.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. BFAk uste du bertako Giza Baliabideetako Plan Estrategikoaren arabera, borondatezko erretiroagatik, ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2017an 101 langileri guztira 3,4 milioi euroren zenbatekoan ordaindutako primak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik salbuetsitako laneko irabaziak direla. Plan horrek ez du egiaztatzen Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 51. artikuluaen arabera, jokamolde horiek kaleratze kolektibo eta arrazoi objektiboengatik kaleratze edo kargugabetzeekin berdintzen utziko lukeen arrazoirik egon denik, zeinaren kalte-ordainak badauden PFEZetik salbuetsita, abenduaren 5eko 13/2013 Faren 9. artikuluaen arabera.
2. BFAk eta GUFEk, 2012-2013 ekitaldietako erosahalmenaren galeragatik zorra (Funtzionarioen Akordioaren 70.4 artikuluan eta Langile Lan Kontratudunen Hitzarmenaren 92.4 artikuluan jasotakoa) itzultze aldera, beren langile guztien berariazko osagarria areagotu dute 2016an; gorakada hori lanpostu bakoitzeko ordainsarien % 1ekoa izan da. Esleipen horrek berekin dakar funtzio publikoaren araudian ezarritako berariazko osagarriaren izaera aldatzea. BFAk 1,4 milioi euro ordaindu ditu eta GUFEk 438.514 euro, gutxi gorabehera.
3. Seed Bizkaiko Kapitala SAK kontratu mugagabe bat egin du, ekitaldiko Aurrekontuan plantillako plaza hutsik izan gabe, horrek abenduaren 27ko Foru Arauaren 29. artikulua urratzen du, 2017ko urterako BLHko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
4. Enpresa Sektore Publikoko sei erakundek kontratatu dute energia elektrikoaren hornidura (722.657 euro), BizkaiKOA FEEPk Ondare eta Rekalde aretoen jendaurreko arreta-zerbitzua (96.234 euro), Bizkaiko Basalan SAUk zuhaitzak mozteko eta kentzeko zerbitzua (212.355 euro), Euskalduna Jauregia SAUk gas-hornidura (163.804 euro), eta Garbiker SAUk beste zerbitzu eta hornidura batzuk (610.308 euro); hori guztia publizitate- eta lehia-printzipioei jarraitu gabe (ikusi A.10.2).
5. Beaz SAUk erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuen prozedura- eta publizitate-arauak jarraitu behar zituen enpresak bizkortzeko laguntza-zerbitzua lizitatzean; zerbitzu horrek 215.000 euroren balio zenbatetsia zuen, gehi BEZa.
6. Garbiker SAUk lau ibilgailu erosi ditu, guztira 495.616 euroan (BEZa barne), sozietatearen kontratatzailearen profilean argitaratutako eta aldi berean izapidetutako hiru prozedura irekiren bidez. Hiru ibilgailu horiek aldi berean kontratatu dira, baina berez loteka egin behar zen eta, lote guztien guztizko balio zenbatetsia kontuan hartuta (SPKLTBren 88.7 artikulua), erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuen prozedura- eta publizitate-arauak jarraitu behar ziren (ikusi A.10.2; 11., 12. eta 13. espedienteak).
7. Garbiker, SAren ibilgailuen parkera atxikitako ibilgailuen, ekipo mugikorren eta makinariaren mantentze-zerbitzua emateko esparru-akordioa luzatu egin da 2016ko abuztuaren 31n iraungi zenez geroztik. Esleipendunekin egindako gastua 2017an 507.162 eurorena izan da.



Epaitegi honen iritzira, BLH osatzen duten entitateek, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera (ikus I. Sarrera), zuzentasunez bete dute 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bizkaiko Lurralde Historikoa osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2017ko aurrekontu-ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honek besarkatzen ditu bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 AURREKONTUA, KONTU OROKORRA ETA KONTABILITATEA

- Interbiak, SAUren aurrekontuak ez du urte anitzeko izaera duten inbertsioen eranskina barne hartzen. 2017ko abenduaren 31n Sozietate honek 20,6 milioi euroren inbertsio-konpromisoak ditu.
- ESPko zortzi erakundek gainditu dituzte atal hauetako aurrekontu-zuzkidurak: “Langileen gastuak”, “Kanpoko zerbitzuak”, “Ibilgetu ukiezina”, “Ibilgetu materiala” eta “Finantza-inbertsioak”. Alabaina, ez dituzte horiei dagozkien aurrekontu-aldaketak onartu.

III.2 KONTRATAZIOA

BFAk (ikus A.7), GLFEk (ikus A.9.2) eta ESPk (ikus A.10.2) 2017an formalizatu edo lehenagoko ekitaldietan gauzatu arren 2016an formalizatutako kontratazio-espeditenteen analisi bidez honako egoera hauek atzeman ditugu:

- BizkaiKOA FEED, Aparkabisa SA eta Azpiegiturak SAU erakundeek 160.743, 243.195 eta 668.154 euro gastatu dituzte 2017an, hurrenez hurren, amaitutako kontratuetan. Aurreko kontratuaren epemuga iritsi baino lehen hasi ziren kontratu berriaren izapideak egiten (ikus A.10.2).
- BizkaiKOA FEEDk Bizkaiko Arkeologi Museoaan ikerketa-, hedapen- eta kontserbazio-programak gauzatzeko kudeaketa- eta laguntza-kontratuaren lizitazioa argitaratu du BAOn, eta 967.758 euroan esleitu da, BEZa barne. Kontratu horrek jarraipena ematen dio 2013an esleitutako bati; haren lizitazioa EBAOn argitaratu zen. Kontuan hartuta mota desberdinetako zerbitzuak hartzen dituela barnean, eta ikusita lizitatzailerak bakarrik aurkeztu dela, lizitazioari eginiko publikitate zabaldu egin beharko litzateke, 2013an egin zen bezala (ikus A.10.2; 2. espedientea).
- Biscaytik Fundazioak urtero-urtero egiten du giza baliabideen eta nominen moduluko gorabeherak konpontzeko eta prestakuntza emateko kontratua, prozedura ireki bidez eta kontratatzailearen profilean argitaratuta. Alabaina, ez dago prestazio hori (aldizkakoa eta aurreikusteko modukoa) zatikatzea arrazoitzen duen justifikaziorik. 2016tik 2018ra bitarteko ekitaldietan izapidetutako lau kontratuen lizitazio-zenbatekoak ikusita (192.500, 195.000, 195.000 eta 220.000 euro, hurrenez hurren), kontratuaren xedearen lizitazio erregulazio harmonizatuari lotutako kontratuei aplikagarri zaizkien lege-xedapenei jarraituz izapidetu beharko litzateke eta, horrenbestez, EBAOn argitaratu.
- Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak jarduerak dinamizatzeko, baliabideak erakartzeko eta bere zereginetarako beharrezkoak diren administrazio-lanak egiteko zerbitzuaren lizitazioa



egiten du urtero, prozedura negoziatu bidez. 2017ko gastua 93.177 eurorena izan da, BEZa barne. Kontratu hau esleitzea behar-beharrezkoa da Fundazioak bere helburuak betetzeko, ez baitu bere zerbitzura lan egiten duen langilerik. Ez dago justifikaziorik prestazio hau (aldizkakoa eta aurreikusteko modua) zatikatzeko; hainbat ekitalditako lizitazio-zenbatekoak pilatu egin beharko lirateke, eta aplikatzekoa zaion prozedura erabili.

- Ez dira negoziatu Ogasuneko eraikinaren instalazio elektrikoa egokitzeke obren kontratuaren baldintzak, baina kontratua esleitu da, prozedura negoziatu bidez, 215.138 euroan. Atzerapenarekin egin dira zuinketa egiaztatzeke akta, segurtasun- eta osasun-planaren eta lan-programaren onespena, eta obra-harrera (ikusi A.7; 4. espedienteak).
- Azpiegitura SAUk 8,4 milioi euroan esleitutako bi obra-kontratutan eta Garbiker SAUk 893.101 euroan esleitutako lau hornidura-kontratutan, Baldintza Administratibo Berezien Agirian prezioaren irizpidea baloratzeko ezarritako irizpideak ez dio puntuazio handiena ematen soilik eskaintza merkeenari, edo eragotzi egin dezake eskaintzarik merkeenak puntu guzti-guztiak eskuratzea (ikusi A.10.2; 5., 6., 11., 12., 13. eta 14. espedienteak).
- Azpiegitura SAUk 8,4 milioi euroan esleitutako bi obra-kontratutan, Baldintza Administratibo Berezien Agiriak esleipen-irizpide gisa ezartzen du makinaren, ekipamenduen eta instalazioen balorazioa, kontratuaren helburuaren gainean plus bat izan gabe (ikusi A.10.2; 5. eta 6. espedienteak).
- BFAk guztira 11,2 eta 47,3 milioi euroan esleitutako zazpi zerbitzu-kontratutan eta lau esparru-akordiotan (hurrenez hurren), Baldintza Administratibo Berezien Agiriak ez du jasotzen balio anormalak edo neurrigabeak txertatzearen ondorioz proposamena bete ezin dela hautematea ahalbidetuko luketen parametro objektiborik (ikusi A.7; 5., 6., 7., 8., 9., 10., 12., 16., 17., 18. eta 19. espedienteak).
- Azpiegitura SAUk 8,4 milioi euroan esleitutako bi obra-kontratutan, Baldintza Administratibo Berezien Agiriko esleipen-irizpideetan hobekuntzen atal bat agertzen da, baina ez du zehazten zer elementu eta zer baldintzatan aurkez daitezkeen (ikusi A.10.2; 5. eta 6. irizpideak).
- BFAk gainditu egin du guztira 3,7 milioi euroan esleitutako bi kontratu-obra eta zerbitzu-kontratu bat esleitzeko gehieneko epea (ikusi A.7; 1., 3. eta 13. espedienteak).
- Bizkaiko Tutoretza Erakundea FEEPren kanpoko aholkularitza juridikoaren kontratua 2017ko urtarrilaren 2an formalizatu zen, 204.490 euroan (BEZa barne), eta kontratuaren behin betiko bermea 2017ko apirilaren 25ean jarri zen (ikusi A.10.2; 1. espedienteak).
- BFAk 5,6 milioi euroan esleitutako obra-kontratu bat inolako kosturik gabe aldatzea onetsi du. Horretarako, justifikatu du beharrezkoa zela prestazioa egokitzea kontratua esleitu ondoren onetsitako zehaztapan teknikoetara eta ingurumen-, hirigintza-, segurtasun- eta irisgarritasun-zehaztapanetara (ikusi A.7; 30. espedienteak).
- BFAk Administraziori egotzi ahal zitzaizkion etenaldiak eta luzapenak onetsi zituen 2011n eta 2013an 2,3 milioi euroan esleitutako bi zerbitzu-kontratutan; hala, hasierako exekuzio-epea % 130 eta % 63 areagotu da bi kontratu horietan, hurrenez hurren. Kontrataziora bideratutako funts publikoak modu eraginkorrean erabiltzen direla bermatzeko,



beharrezkoa da erantzun beharreko premiak aldez aurretik zehaztea, aurreikusitako exekuzio-epeak gehiegi luza ez daitezen (ikus A.7; 20. eta 21. espedienteak).

- Amaierako ziurtagiria onesteko epea (3 hilabete, harreratik zenbatzen hasita) gainditu egin da 5,9 milioi euroan esleitu diren hiru obra-kontratutan (ikus A.7; 1., 28. eta 31. espedienteak).
- Honako gastu hauek homogeneousak, aurreikusgarriak eta bakoitza hornitzaile batekin kontraturikoak dira; honenbestez, lehia bideratu behar zatekeen horiek kontratatzean:

ENTITATEA	XEDEA	Euroak milakotan (BEZa barne)	
			ZENBATEKOA
BFA	Hainbat sailetako itzulpenak, Euskara zerbitzukoak salbu		135
	Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren laguntzak izapidetzeko laguntza teknikoa		50
	Biscaytik Fundazioa Telefono-zerbitzua		53

III.3 DIRU-LAGUNTZAK

Hautatutako diru-laguntza zuzenen azterketatik zera ondorioztatu dugu (ikus A.8): 5,8 milioi euroan emandako diru-laguntza izendun baten kontu justifikagarriak ez ditu jasotzen onuradunak hiru eskaintza eskatu izanaren agiri euskarriak, edota eskaerarik ezin eskatu izateko gastuen ezaugarri bereziak.

III.4 BESTE BATZUK

- Bizkaiko Tutoretza Institutuak eta BizkaiKOak enpresa-erakunde publikoaren izaera juridikoa dute. Gauzatzen duten jarduera kontuan hartuta, eta bi erakundeetako batek ere merkatuko baldintzetan jarduten ez duenez, komenigarria litzateke beren izaera juridikoa benetan jarduten duten baldintzetara egokitzea.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

BFAk 2016 eta 2017ko ekitaldietan kitatutako magnitude nagusiak honako hauek dira:

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Euroak milakotan		
	2017	2016	BARIAZIOA 2017/2016
Sarrera arruntak	7.828.316	7.224.580	% 8,36
Zerga zuzenak eta zeharkakoak	7.388.686	6.826.423	
Tasak eta bestelako sarrerak	205.221	225.364	
Transferentzia arruntak	233.885	171.649	
Ondare-sarrerak	524	1.144	
Erakunde konpromisoak	(6.401.784)	(5.686.608)	% 12,58
(Estatuari kupoa).....	(564.064)	(380.742)	
(Eusko Jaurlaritzari ekarpena).....	(5.001.612)	(4.464.090)	
(Udalei ekarpena).....	(836.108)	(841.776)	
Sarrera arrunt garbiak	1.426.532	1.537.972	(% 7,25)
Gastu arruntak	(1.114.168)	(1.069.528)	% 4,17
(Langile gastuak).....	(194.001)	(187.932)	
(Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak).....	(428.413)	(405.347)	
(Finantza gastuak).....	(27.381)	(29.744)	
(Transferentzia arrunt garbiak).....	(464.373)	(446.505)	
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA (1)	312.364	468.444	(% 33,32)
KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA (2)	(154.846)	(152.431)	
Inbertsio errealen besterentzea	444	487	
Kapital transferentziek eragindako sarrerak.....	5.035	8.410	
(Inbertsio errealetan gastuak).....	(60.471)	(62.116)	
(Kapital transferentziek eragindako gastuak).....	(99.854)	(99.212)	
FINANTZAKETA ERAGIKETEN SALDOA (3)	(102.401)	(95.717)	
Finantza aktiboen bariazio garbia.....	(102.401)	(95.717)	
Finantza pasiboen bariazio garbia	-	-	
EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA (1+2+3)	55.117	220.296	
EKITALDI ITXIEN EMAITZA (4)	(560.313)	(113.367)	
HORNIDUREN BARIAZIOA (5)	424.458	(104.051)	
BESTELAKO DOIKETAK (6)	(7.166)	3.741	
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA (1+2+3+4+5+6)	(87.904)	6.619	
EMAITZA METATUA 12.31-N	(23.108)	64.796	

ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA

2017 ekitaldiaren amaierako likidazioaren arabera, eragiketa arrunten ondoriozko emaitza aurreko ekitaldikoa baino 156,1 milioi euro baxuagoa da (-% 33,32). Hona hemen bariazio adierazgarrienak:

- Sarrera arrunten kontzeptuan kitatutako eskubideek 603,7 milioi euro egin dute gora (% 8,36), igo egin direlako 562,3 milioi euro zerga zuzen eta zeharkakoak eta 62,2 milioi euro transferentzia arruntak, eta tasa eta bestelako sarrerek 20,1 milioi euro behera egin dutelako. Azken urteetan, erakundearteko fluxuen inguruko desadostasunak egon dira EAEren eta Estatuaren artean. Ondorioz, Estatuak hainbat zenbateko atxiki zituen eta kobratzeke geratu ziren, hala BEZa Estatuarekin doitzeko kontzeptuan nola Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren kontzeptuan. Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak hartutako erabakiek amaiera eman diete desadostasun horiei eta, ondorioz, dagozkien erregularizazioak aplikatu dira. Erregularizazio horiei esker, zeharkako zergak eta transferentzia arruntak erregistratu ahal izan dira ekitaldi honetan, eta kobratzeke zeuden ekitaldi itxietatik baliogabetu; zehazki, 303,5 milioi euroren zeharkako zergak (2016an kontabilizatuak) eta 72,5 milioi euroren transferentzia arruntak (38,9 milioi euro kontabilizatu ziren 2016an eta 33,6 milioi euro aurreko ekitaldietan). Zenbateko horretatik, 65,2 milioi euro daude kobratzeke 2017ko abenduaren 31n; 2018tik 2021era arteko ekitaldietan kobratuko dira.
- Erakunde konpromisoek eragindako gastua 715,2 milioi euroan gehitu da (% 12,58) 2016koaren aldean, itunpeko zergen diru-bilketa % 11,70 igo delako. Aldakuntza horretan zeresan handia dute Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak hartutako erabakien ondorioek. Ekitaldi itxietan baliogabetutako eta 2017ko diru-sarrera arrunt gisa aitortutako 303,5 milioi euroren zeharkako zergen ondorioz, 249 milioi euro inguruko konpromiso instituzionalak sortu dira, soilik urte horretan.

Aztergai ditugun partidak eta horiek ekarpenetan dituzten ondorioak kenduz gero 2016tik eta 2017tik, hau izango litzateke eragiketa arruntengatiko emaitza:

	Euroak milakotan		
	2017	2016	
Sarrera arruntak	7.452.355	6.882.159	% 8,29
Erakunde konpromisoak	(6.151.820)	(5.686.608)	% 8,18
Sarrera arrunt garbiak	1.300.535	1.195.551	% 8,78
Gastu arruntak	(1.114.168)	(1.069.528)	% 4,17
Eragiketa arrunten emaitza	186.367	126.023	% 47,88

- Gastu arruntek 44,6 milioi euro egin dute gora (% 4,17), nagusiki ondasun eta zerbitzuen kontratazioko gastuek eta erakunde-konpromisoak kenduta transferentzia eta diru-laguntza arruntek eragindako gastuek, hurrenez hurren, 23,1 eta 17,9 milioi euroan gora egin dutelako.



KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA

Emaitza negatiboa 2,4 milioi euro hazi da, kapital transferentzietan gastu garbia 4 milioi euro handiagoa izan delako, nahiz egiazko inbertsioetako gastuak 1,6 milioi euro egin duen behera.

FINANTZA ERAGIKETEN SALDOA

2017ko ekitaldiko saldo negatiboa 6,7 milioi euro handitu da aurreko ekitaldiarekiko, foru partaidetza duten sozietateen kapital zabalkuntzetarako ekarpena handitu izanaren ondorioz (Interbiak SAUri 3,5 milioi euroren ekarpen handiagoa eta BECi 1,3 milioi eurorena); aurrekontuko zorpetzeari bere horretan eutsi zaio.

AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA

Doitutako aurrekontu emaitza negatiboa, 2017an 87,9 milioi eurorena izan denak, aurreko ekitaldikoa baino 94,5 milioi euro txikiagoa izan da, zeina 6,6 milioi eurorena baitzen. Hona hemen bariazio esanguratsuenak:

- Ekitaldi arruntaren emaitza 165,2 milioi euroan jaitsi da.
- 446,9 milioi euroren gorakada aurreko ekitaldietako emaitza negatiboan
- 2017an kaudimen-gabezietarako eta erakunde konpromisoetarako zuzkiduraren bariazioa 2016koa baino 528,5 milioi euro txikiagoa izan da.

“Eragiketa arruntengatik emaitza” atalean aipatutako alderdiak kontuan hartuta, 2017ko aurrekontu-emaitza doitua 288,1 milioi eurorena izango litzateke eta 2016koa 623,9 milioi altuagoa (negatiboa, 335,8 milioi euroan). Hala, gora egingo luke indarreko ekitaldiaren emaitzak eta itxitako ekitaldien emaitza negatiboak (177,2 eta 71 milioi euro, hurrenez hurren).

ZORPETZEA

2017an BFAk 146,3 milioi euro baliatu ditu zorpetze berrikoak. BFAk 2017ko abenduaren 31n zuen zor bizia ez da aldatu. ESP barne hartzen badugu, 2017an zorpetzeak % 1,84 egin du behera.

	Euroak milakotan	
	2017	2016
BFAren aurrekontuko zorpetzea	1.207.456	1.207.456
Merkataritzako foru sozietateen zorpetzea	902.311	941.858
GUZTIRA	2.109.767	2.149.314



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDORIOA

Apirilaren 27ko 2/2020 Lege Organikoak, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzkoak, 3. eta 4. artikuluetan administrazio publikoei ezargarriak zaizkien aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasunaren printzipioak ezartzen ditu, aurrekontuan oreka edo egiturazko superabit egoera modura eta oraingo eta etorkizuneko gastu konpromisoak finantzatzeko gaitasun modura ulertzen direnak, defizitaren eta zor publikoaren mugaketen barruan.

Kontu Orokorrean jasotako Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko txostena Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Nagusiari eta Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzari Independenteari igorri zitzaienten eta horiek ez dute salbuespenik adierazi.

Diru-sarrera arruntek gora egin dute aurrekontuetan zehaztutakoen aldean, eta gastu arruntaren exekuzioa baxuagoa izan da guztizko kreditua baino. Ondorioz, finantza-egoerak hobera egin du 2017ko abenduaren 31n, eta eragiketa arruntengatik emaitza, 186.367 milioi eurorena, bat etorri da ekitaldiarekin (Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak hartutako erabakien efektuak kenduta).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

A) 2017-KO AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITAT.	DIRU-BIL. LIKIDOA	KOBRA. GABEA
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
1.- Zerga zuzenak	A.5	3.424.395	565.481	3.989.876	3.462.054	3.394.486	67.568
2.- Zeharkako zergak	A.5	3.594.636	-	3.594.636	3.926.632	3.825.821	100.811
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.5	147.600	27	147.627	205.221	138.506	66.715
4.- Transferentzia arruntak		74.404	3.902	78.306	233.885	162.869	71.016
5.- Ondare sarrerak		1.246	145	1.391	524	521	3
6.- Inbertsio errealen besterentzea		900	75	975	444	444	-
7.- Kapitaleko transferentziak		4.410	332	4.742	5.035	5.002	33
8.- Finantza aktiboen aldak.	A.6	800	13.508	14.308	2.246	2.246	-
9.- Finantza pasiboen aldak.		146.288	-	146.288	146.288	146.288	-
GUZTIRA		7.394.679	583.470	7.978.149	7.982.329	7.676.183	306.146

GASTUAK	ERANSK.	AURREIKUSPENA			OBLIG. KITAT.	ORDAINK. LIKIDOA	ORDAIN. GABEA
		HASIER.	ALDAK.	B. BETIK.			
1.- Langileen ordainsariak	A.3	198.743	-	198.743	194.001	190.899	3.102
2.- Gastu arruntak		448.714	(8.020)	440.694	428.413	363.615	64.798
3.- Finantza gastuak		49.294	(17.091)	32.203	27.381	27.381	-
4.- Transferentzia arruntak	A.4	6.283.567	596.433	6.880.000	6.866.157	6.798.607	67.550
5.- Ordainketa osoaren kreditu funtsa..		1.010	(926)	84	-	-	-
6.- Inbertsio errealak		63.260	13	63.273	60.471	45.685	14.786
7.- Kapitaleko transferentziak	A.4	99.282	12.779	112.061	99.854	91.959	7.895
8.- Finantza aktiboen aldak.	A.6	104.521	282	104.803	104.647	104.647	-
9.- Finantza pasiboen aldak.		146.288	-	146.288	146.288	146.288	-
GUZTIRA		7.394.679	583.470	7.978.149	7.927.212	7.769.081	158.131

B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2017

Euroak milakotan

	HASIERAKO	KITATUTAKO	(KOBRA.)	AZKEN	EMAITZA/
	ZORRA	ESKUBIDE/OBLIG.	ORDAINK	ZORRA	BAJAK
Zordunak	2.209.293	1.648.980	309.761	1.339.219	(560.313)
Hartzekodunak	144.187	144.187	135.499	8.688	-
					(560.313)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

C. DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA, 2017	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	7.982.329
- Obligazio kitatuak	(7.927.212)
EKITALDI ARRUNTAREN EMAITZA (1)	55.117
EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA (2)	(560.313)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA (1+2)	(505.196)
Finantzaren doiketa	83.893
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketa	340.565
Inbertsioen Europako Bankuaren atxikitako maileguren finantzaketagatik doiketa.....	(3.905)
Udalkutxa automatikoki gehitzeagatiko doiketa	(2.743)
AMAS automatikoki gehitzeagatiko doiketa.....	(518)
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA 2017	(87.904)

D. METATUTAKO EMAITZA 2017.12.31N	Euroak milakotan
2016ko ekitaldiaren emaitza bategina	64.796
2017ko ekitaldiaren emaitza	(87.904)
2017KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA	(23.108)

E. 2017KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA	Euroak milakotan
Kobratzeko dauden eskubideak.....	1.645.365
- Ordaintzeke dauden obligazioak.	(166.819)
Finantzaren doiketa	(1.187.842)
Itunpeko zergen kobrantzaren doiketa	(302.644)
Bestelako doiketak	(22.256)
Diruzaintza	11.088
EMAITZA BATEGINA	(23.108)



F. DIRUZAINZA GELDIKINA 2017.12.31-N		Euroak milakotan
	ERANSKINA	31.12.2017
Aurrekontuko diruzaintzako funts likidoak		11.088
Kobratzeko dauden saldoak.....		1.645.365
Ordaintzeko dauden saldoak		(166.819)
DIRUZAINZA GELDIKIN GORDINA		1.489.634
Finantzaren doiketa	A.5	(1.187.842)
Itunpeko zergen kontzeptuko doiketa	A.5	(302.644)
DIRUZAINZA GELDIKIN GARBIA		(852)
Diru-bilketaren aldizkakotzea.....		(295.351)
Itunpeko zergen gehiegizko doiketa		184.744
Zerga itunduen doiketa, 2018ko aurrekontuan barne hartuak		117.900
Ordainketa aldizkakotzea.....		20.321
DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDOA		26.762
Atxikitako finantzaketa-soberakina		(6.675)
Aurrekontuko Foru Araua gehitzea		(14.123)
Udalen partaidetza AMASen		(1.458)
DIRUZAINZA GELDIKIN GARBI LIKIDO ERABILGARRIA		4.506

G. DIRUZAINZA KONTUA 2017.12.31-N		Euroak milakotan
Aurrekontuko diruzaintza 2016.12.31n		(70.275)
Aurrekontu kobrantzak.....		10.701.470
- Aurrekontuko ordainketak.....		(10.620.107)
Aurrekontuko diruzaintza 2017.12.31n (A).....		11.088
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2016.12.31n		411.629
Aurrekontuz kanpoko kobrantzak.....		12.678.424
- Aurrekontuz kanpoko ordainketak		(12.757.274)
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2017.12.31n (B).....		332.779
DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA (A+B)		343.867
DIRUZAINZA EZ ERABILGAR. FINANTZEN EUROPAKO BANKUAN		580

H. ZORRAREN EGOERA		Euroak milakotan
AURREKONTUAREN ZORPETZEA 2017-12-31-N		1.207.456
2017.12.31-N EMANDAKO ABALAK		211.244



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. GEROKO EKITALDIEN KONTURA HARTUTAKO GASTU KONPROMISOAK Euroak milakotan

SAILA	2018	2019	2020	2021	GAINERAKO	GUZTIRA SAILA
Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala						
Baimendua	43.938	27.377	26	249	-	71.590
Erabilia.....	41.265	26.014	26	91	-	67.396
Gizarte Ekintza						
Baimendua	110.539	53.197	26.771	26.693	751.579	968.779
Erabilia.....	1.908	730	-	-	-	2.638
Euskara eta Kultura						
Baimendua	3.658	1.877	681	215	-	6.431
Erabilia.....	2.632	1.255	187	187	-	4.261
Ogasuna eta Finantzak						
Baimendua	6.504	2.202	76	-	-	8.782
Erabilia.....	3.192	50	50	-	-	3.292
Garraioa, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa						
Baimendua	80.970	79.310	80.681	82.803	260.397	584.161
Erabilia.....	176	-	-	-	-	176
Herri Admin. eta Erakundearteko Harrem.						
Baimendua	7.657	1.064	61	-	-	8.782
Erabilia.....	7.388	988	37	-	-	8.413
Ekonomi eta Lurralde garapena						
Baimendua	197.313	171.130	133.609	120.396	1.468.542	2.090.990
Erabilia.....	134.205	119.805	107.976	102.775	1.365.312	1.830.073
Enplegua, Gizarteratzea eta Berdint.						
Baimendua	6.656	277	-	-	-	6.933
Erabilia.....	5.325	22	-	-	-	5.347
BAIMENDUA GUZTIRA	457.235	336.434	241.905	230.356	2.480.518	3.746.448
ERABILIA GUZTIRA	196.091	148.864	108.276	103.053	1.365.312	1.921.596

OHARRA: Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Bilboko Hiri Trenbidearen inbertsioei buruzko finantza planean, BFAk 2013tik 2027ra bitarteko urteetan 643 milioi euroren ekarpena egitea aurreikusten da, urte horietako BFAren Aurrekontu Orokorretan kontsignatuko direnak, bakoitzari egin beharreko transferentziari dagokion kopuruan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

J. EGOERAREN BALANTZEA 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n

Miles de euros

AKTIBOA	ERANSKINA	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		1.711.527	1.661.163	ONDARE GARBIA	432.060	372.753
Ibilgetu ez-materiala.....		-	-	Ondarea.....	202.112	202.112
Ibilgetu materiala		560.325	550.926	Sortutako ondarea	216.449	156.084
Taldeko erak. e/luz. fin.inb.	A6	1.082.857	1.030.073	Emaitz. egotz. bste ondare gehik. batz.	13.499	14.557
Epe luzeko finantza inberts.....		68.345	80.164			
				PASIBO EZ-ARRUNTA	1.361.020	1.709.482
				Epe luzeko hornidurak.....	307.750	648.314
				Epe luzeko zorrak.....	1.053.270	1.061.168
AKTIBO ARRUNTA		799.610	1.264.013	PASIBO ARRUNTA	718.057	842.941
Kudeaketa eragiketeng. zord.....	A5	391.721	857.399	Obligaz. eta bst. baloreak.....	-	-
Kobratzeko beste kontu batzuk		992	1.021	Kreditu erakundeekiko zorrak.....	209.186	321.288
Administrazio publikoak		-	-	Beste zor batzuk.....	227.756	169.765
Bst. erak. baliab. zordunak		59.605	40.959	Kudeaketa eragik. hartzekod.	169.658	146.898
Finan. inberts. epe labur.		2.951	22.784	Ordaintzeko bst. kontu batz.	38.264	152.788
Bst. aktibo baliokide batzuk.....		580	580	Administrazio publikoak	4.765	4.810
Diruzaintza.....		343.761	341.270	Bst.erak.publ.batz adm.hartzek.	68.428	47.392
AKTIBOA, GUZTIRA		2.511.137	2.925.176	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	2.511.137	2.925.176

K. 2017 eta 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

Euroak milakotan

	2017	2016
Zerga sarrerak.....	7.493.841	6.780.572
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak.....	239.905	180.536
Salmenta garbiak eta zerbitzu egitea.....	66.320	65.761
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	52.424	43.894
Hornidura gehiegizkoak.....	340.565	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	8.193.055	7.070.763
Langileria-gastuak	(194.240)	(188.180)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak.....	(6.968.692)	(6.357.993)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(463.350)	(440.192)
Ibilgetua amortizatzea.....	(13.962)	(13.779)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(7.640.244)	(7.000.144)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	552.811	70.619
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta salgai dauden aktib. bestereng. emait.....	2.209	662
Arruntak ez diren beste kontu sail batzuk	(423)	(48)
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	554.597	71.233
Sarrera finantzarioak.....	56.764	85.894
Gastu finantzarioak.....	(27.509)	(29.398)
Balioaren narriadura, bajak eta taldeko entitateen finantza aktiboen besterentzeak	(49.678)	(62.031)
Kaudimen-gabeziengatik balio narriadura edo narriaduraren itzulketa	83.894	19.057
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	63.471	13.522
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	618.068	84.755



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA

A. 2017KO AURREKONTU ARRUNTAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	AURREIKUSPENA			ESKUBIDE KITAT.	DIRU-BIL. LIKIDOA	KOB.R. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	86	-	86	260	260	-
4.- Transferentzia arruntak	95.284	3.449	98.733	98.747	95.643	3.104
5.- Ondare sarrerak	28	-	28	5	5	-
7.- Kapitaleko transferentziak	2.316	-	2.316	2.316	2.316	-
8.- Finantza aktiboen aldak.	350	-	350	124	124	-
GUZTIRA	98.064	3.449	101.513	101.452	98.348	3.104

GASTUAK	AURREIKUSPENA			OBLIG. KITAT.	ORDAIN. LIKIDOA	ORDAIN. GABEA
	HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.			
1.- Langileen ordainsariak	60.135	765	60.900	60.474	57.794	2.680
2.- Gastu arruntak	35.086	2.684	37.770	37.188	31.870	5.318
4.- Transferentzia arruntak	177	-	177	134	132	2
6.- Inbertsio errealak	2.226	-	2.226	2.104	1.203	901
7.- Kapitaleko transferentziak	90	-	90	90	51	39
8.- Finantza aktiboen aldak.	350	-	350	147	147	-
GUZTIRA	98.064	3.449	101.513	100.137	91.197	8.940

B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2017

Euroak milakotan

	HASIERAKO	KITATUTAKO	(KOB.RAN.)	AZKEN	EMAITZA/
	ZORRA	ESKUBIDE/OBLIG.	ORDAINK.	ZORRA	BAJAK
Zordunak	-	-	-	-	-
Hartzekodunak	6.159	6.159	6.159	-	-
					-

C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2017

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	101.452
- Obligazio kitatuak	(100.137)
EKITALDIAREN EMAITZA	1.315
EKITALDI ITXIEN BARIAZIOA	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	1.315

D. METATUTAKO EMAITZA 2017.12.31N

Euroak milakotan

2016KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA	(568)
2017ko emaitza	1.315
2017KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA	747



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

E. 2017KO EKITALDIAREN EMAITZA BATEGINA		Euroak milakotan
Kobratzeko dauden eskubideak		3.104
- Ordaintzeke dauden obligazioak		(8.940)
Aurrekontuko diruzaintza		6.583
EMAITZA BATEGINA		747

F. DIRUZAINZA KONTUA 2017.12.31-N		Euroak milakotan
Aurrekontuko diruzaintza 2016.12.31n		5.591
Aurrekontu kobrantzak		98.348
- Aurrekontuko ordainketak		(97.356)
Aurrekontuko diruzaintza 2017.12.31n (A)		6.583
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2016.12.31n		2.014
Aurrekontuz kanpoko kobrantzak		36.404
- Aurrekontuz kanpoko kobrantzak		(36.350)
Aurrekontuz kanpoko diruzaintza 2017.12.31n (B)		2.068
DIRUZAINZA ERABILGARRIA GUZTIRA (A+B)		8.651

G. GEROKO EKITALDIEN KONTURA HARTUTAKO GASTU KONPROMISOAK						Euroak milakotan
	2018	2019	2020	GAINERAKOA	GUZTIRA	
BAIMENDUA GUZTIRA	2.837	44	44	59		2.984
ERABILIA GUZTIRA	2.361	-	-	-		2.361

H. EGOERAREN BALANTZEA 2017 ETA 2016KO ABENDUAREN 31N						Euroak milakotan
AKTIBOA	2017	2016	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2017	2016	
AKTIBO EZ ARRUNTA	37.891	38.011	ONDARE GARBIA	39.053	37.836	
labilgetu materiala	37.891	38.011	Ondarea	14.077	14.077	
			Sortutako ondarea	(9.714)	(11.913)	
			Emaitz. egozt. bste ondare gehik.batz.	34.690	35.672	
AKTIBO ARRUNTA	12.410	8.262	PASIBO ARRUNTA	11.248	8.437	
Zord. eta kobratzeko bst. knt btz ...	3.104	-	Epe laburreko zorrak	16	15	
Finantza inbertsioak epe lab.	655	657	Hartz. eta ordaintz. b.kontu batz.	11.232	8.422	
Eskud. eta bst. akt. lik. baliok.	8.651	7.605				
AKTIBOA, GUZTIRA	50.301	46.273	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	50.301	46.273	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

I. 2017 ETA 2016KO EKITALDIETAKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	102.045	93.283
Salmenta garbiak eta zerbitzu egitea	54	57
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	24	133
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	102.123	93.473
Langileria-gastuak	(60.494)	(58.960)
Transferentziak eta emandako diru-laguntzak	(224)	(2.745)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b.	(38.238)	(33.751)
Ibilgetua amortizatzea	(1.153)	(1.130)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(100.109)	(96.586)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	2.014	(3.113)
Balioaren narriadura eta ibilgetu ez finantz. eta aktib. besterenganatzeag. emaitza	-	-
Arruntak ez diren beste kontu sail batz.	186	223
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	2.200	(2.890)
Sarrera finantzarioak	-	-
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO AURREZKI-EZA)	2.200	(2.890)



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.3 FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	ELA		TUTORETZA INSTITUTUA		BizkaiKOA	
	2017	2016	2017	2016	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	1.800	1.851	101	118	17.549	18.172
Ibilgetu ukiezina.....	3	4	34	65	46	66
Ibilgetu materiala.....	1.797	1.847	67	53	17.503	18.106
AKTIBO ARRUNTA	333	354	423	526	832	874
Izakinak.....	-	-	15	14	-	-
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....	122	109	73	100	380	332
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	2	2	-	-	10	29
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	209	243	335	412	442	513
AKTIBOA, GUZTIRA	2.133	2.205	524	644	18.381	19.046
ONDARE GARBIA	1.947	2.092	101	118	17.550	18.243
Eskrituran jasotako kapitala.....	301	301	-	-	-	-
Erreserbak.....	52	52	-	-	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	190	90	2.565	2.487	4.370	4.410
Aurreko ekitaldien emaitza.....	(285)	(86)	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....	(200)	(199)	(2.565)	(2.487)	(4.370)	(4.410)
Funts propioak	58	158	-	-	-	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.	1.889	1.934	101	118	17.550	18.243
PASIBO EZ-ARRUNTA	41	-	-	-	-	-
Epe luzeko hornidurak.....	41	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	145	113	423	526	831	803
Epe laburreko zorrak.....	5	5	6	5	235	107
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab.....	-	-	-	-	-	46
Merkat. hartz. eta ordaint. bte kntu batz.....	140	108	417	521	596	650
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	2.133	2.205	524	644	18.381	19.046

B. 2017 eta 2016ko ekitaldietako GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	ELA		TUTORETZA INSTITUTUA		BizkaiKOA	
	2017	2016	2017	2016	2017	2016
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	1.033	1.046	-	-	206	210
Hornidurak.....	-	-	(499)	(466)	(478)	(567)
Bestelako ustiapen-sarrerak.....	-	6	-	-	-	-
Langileria-gastuak.....	(1.051)	(1.068)	(1.423)	(1.336)	(1.190)	(1.174)
Bestelako ustiapen-gastuak.....	(177)	(173)	(643)	(685)	(2.911)	(2.881)
Ibilgetua amortizatzea.....	(51)	(60)	(70)	(66)	(993)	(1.003)
Ibilgetu ez finantzarioaren diru-lag. egozteak.....	45	45	70	66	993	1.003
Hornidura gehiegizkoak.....	1	1	-	-	-	-
Narriadura eta ibilget. erag. emait.....	-	-	-	-	-	2
Beste emaitza batzuk.....	-	4	-	-	3	-
Ustiaketaren emaitza	(200)	(199)	2.565	(2.487)	(4.370)	(4.410)
Emaitza finantzarioa	-	-	-	-	-	-
ERAGIKETA JARRAITUEN EMAITZA	(200)	(199)	(2.565)	(2.487)	(4.370)	(4.410)
EKITALDIKO EMAITZA	(200)	(199)	(2.565)	(2.487)	(4.370)	(4.410)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.4 FORU MERKATARITZAKO SOZIETATEAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	APARKABISA		AZPIEGITURAK		BASALAN		BEAZ	
	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	24.839	25.944	246.198	245.384	619	815	577	715
lbilgetu ukiezina.....	1	2	3.234	3.352	-	-	2	3
lbilgetu materiala.....	231	244	94.665	100.683	619	815	502	631
lbilgetuko inbertsioak.....	24.607	25.698	108.859	101.096	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. E/luz.....	-	-	37.681	37.901	-	-	59	59
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	-	-	1.759	2.352	-	-	14	22
AKTIBO ARRUNTA	394	368	114.243	120.227	2.266	2.826	17.445	13.147
Izakinak.....	-	-	90.548	99.878	31	32	-	-
Merkatar. zord. eta kobr. beste kntu batzuk.....	135	128	18.188	15.020	1.879	1.705	526	1.088
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab. E/lab.	-	-	-	-	-	-	-	-
Epe laburreko finantza-inbertsioak.....	-	-	536	537	2	1	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	17	15	1.482	1.217	19	18	-	-
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	242	225	3.489	3.575	335	1.070	16.919	12.059
AKTIBOA, GUZTIRA	25.233	26.312	360.441	365.611	2.885	3.641	18.022	13.862
ONDARE GARBIA	22.039	22.632	275.193	277.360	1.744	1.674	1.783	1.951
Eskrituran jasotako kapitala.....	29.822	29.722	346.844	345.204	950	950	1.921	3.201
Erreserbak.....	-	-	1	1	725	650	1	1
Aurreko ekitaldien emaitzak.....	(7.091)	(6.168)	(74.471)	(68.453)	-	-	(69)	(1.173)
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	-	-	-	-	-	3.499	3.598
Ekitaldiaren emaitza.....	(1.090)	(922)	(9.536)	(7.118)	69	74	(3.668)	(3.774)
Funts propioak	21.641	22.632	262.838	269.634	1.744	1.674	1.684	1.853
Balio aldaketagatiko doiketak.....	-	-	(3.008)	(3.839)	-	-	-	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.	398	-	15.363	11.565	-	-	99	98
PASIBO EZ-ARRUNTA	356	445	55.063	59.633	40	-	-	-
Epe luzeko hornidurak.....	1	5	-	-	40	-	-	-
Zorrek kreditu erakundeekin epe luz.	100	200	50.675	55.846	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak.....	255	240	4.388	3.787	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko pasiboak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	2.838	3.235	30.185	28.618	1.101	1.967	16.239	11.911
Epe laburreko zuzkidurak.....	-	-	551	-	-	-	306	54
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	1.548	2.165	9.839	8.044	-	-	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	237	-	748	1.846	37	27	15.370	11.025
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab.	-	-	2	1	-	-	1	1
Merkat. hartz. eta ordaint. bte kntu batz.....	1.053	1.070	19.045	18.727	660	1.661	562	831
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	-	-	404	279	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	25.233	26.312	360.441	365.611	2.885	3.641	18.022	13.862



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	EUSKALDUNA J.		GARBIKER		INTERBIAK	
	2017	2016	2017	2016	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	59.815	61.398	52.103	54.830	1.131.588	1.114.660
lbilgetu ukiezina.....	59	75	129	174	20	5
lbilgetu materiala.....	59.756	61.272	50.116	52.798	1.131.546	1.114.633
lbilgetuko inbertsioak.....	-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz.....	-	-	1.857	1.857	-	-
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	-	51	1	1	22	22
AKTIBO ARRUNTA	8.815	8.922	16.866	15.260	147.095	145.406
Izakinak.....	-	-	-	-	18	16
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....	1.201	906	5.573	4.971	5.968	5.918
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab.....	-	-	180	-	-	-
Epe laburreko finantza-inbertsioak.....	58	4.738	-	383	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	39	53	9	8
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....	7.556	3.278	11.074	9.853	141.100	139.464
AKTIBOA, GUZTIRA	68.630	70.320	68.969	70.090	1.278.683	1.260.066
ONDARE GARBIA	66.366	68.233	41.520	42.335	401.934	347.544
Eskrituran jasotako kapitala.....	70.589	70.589	60.826	58.496	591.700	511.700
Erreserbak.....	144	144	1.293	1.293	116.960	116.975
Aurreko ekitaldien emaitzak.....	(20.042)	(18.821)	(17.754)	(15.898)	(281.515)	(248.257)
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....	(1.323)	(1.221)	(3.140)	(1.856)	(25.573)	(33.257)
Funts propioak	49.368	50.691	41.225	42.035	401.572	347.161
Balio aldaketagatiko doiketak.....	-	-	-	-	-	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.	16.998	17.542	295	300	362	383
PASIBO EZ-ARRUNTA	-	-	21.063	21.319	804.440	842.520
Epe luzeko hornidurak.....	-	-	20.875	21.095	-	-
Zorrek kreditu erakundeekin epe luz.....	-	-	-	-	804.440	842.520
Epe luzeko bestel. zorrak.....	-	-	74	108	-	-
Atzeratutako zergengatiko pasiboak.....	-	-	114	116	-	-
PASIBO ARRUNTA	2.264	2.087	6.386	6.436	72.309	70.002
Epe laburreko zuzkidurak.....	-	-	-	-	-	-
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.....	-	-	-	-	55.574	51.712
Epe laburreko bestel. zorrak.....	82	107	73	128	9.557	10.887
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab.....	-	-	-	-	143	165
Merkat. hartz. eta ordaint. bte kntu batz.....	2.174	1.972	6.313	6.308	7.035	7.238
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	8	8	-	-	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	68.630	70.320	68.969	70.090	1.278.683	1.260.066



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2017 eta 2016KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

	LANTIK		SEED CAPITAL		SEED MIKRO		ZUGAZTEL	
	2017	2016	2017	2016	2017	2016	2017	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA	9.831	10.005	-	-	726	370	2.455	2.304
lbilgetu ukiezina.....	2.204	2.143	-	-	-	-	631	416
lbilgetu materiala.....	7.326	7.561	-	-	-	-	1.824	1.888
lbilgetuko inbertsioak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. E/luz.....	301	301	-	-	-	-	-	-
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....	-	-	-	-	726	370	-	-
AKTIBO ARRUNTA	32.589	28.721	833	953	1.102	1.453	2.026	2.198
Izakinak.....	30	37	-	-	-	-	-	-
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....	9.063	13.846	376	339	-	-	737	1.049
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab.....	-	-	-	-	-	68	-	-
Epe laburreko finantza-inbertsioak.....	32	82	1	3	191	-	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	398	610	-	-	-	-	32	38
Eskudirua eta bst. aktibo likido baliokide batz. ..	23.066	14.146	456	611	911	1.385	1.257	1.111
AKTIBOA, GUZTIRA	42.420	38.726	833	953	1.828	1.823	4.481	4.502
ONDARE GARBIA	27.586	28.820	650	650	1.738	1.751	3.554	3.339
Eskrituran jasotako kapitala.....	14.554	14.554	718	718	1.800	1.800	2.616	2.616
Erreserbak.....	2.134	2.067	-	-	-	-	(25)	(25)
Aurreko ekitaldien emaitzak.....	-	-	(68)	(68)	(49)	(29)	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	-	1.137	1.000	141	124	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....	-	67	(1.137)	(1.000)	(154)	(144)	-	-
Funts propioak	16.688	16.688	650	650	1.738	1.751	2.591	2.591
Balio aldaketagatiko doiketak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.	10.898	12.132	-	-	-	-	963	748
PASIBO EZ-ARRUNTA	747	525	-	-	-	-	121	127
Epe luzeko hornidurak.....	747	525	-	-	-	-	121	127
Zorrek kreditu erakundeekin epe luz.	-	-	-	-	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrek.....	-	-	-	-	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko pasiboak.....	-	-	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	14.087	9.381	183	303	90	72	806	1.036
Epe laburreko zuzkidurak.....	1.389	619	-	-	-	-	44	15
1. BFAk, Giza Baliabideen Planarekin bat, PFEZetik salbuetsitako laneko etekintzat hartzen ditu borondatezko erretiroagatik, erabateko ezintasun iraunkorragatik eta administrazio publikoko langile izateari uko egiteagatik 2017an 101 langileri ordaindutako primak –guztira 3,4 milioi euro–. Planak ez du aipatzen argudiorik jarduketa horiek, Langileen Estatutuaren testu bategineko 51. artikulua betez, arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratze kolektiboekin edo utzarazpenekin berdinsteko; halakoetan, kalte-ordainak salbuetsita daude, hala xedatzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua. Bestalde, Zugaztel, S.A.U.ko langile batek 62.839 euroko kalte-ordaina jaso du, PFEZtik salbuetsia, enplegatu publikoa izateari uko egiteagatik. Kalte-ordain hori ezin har daiteke salbuetsizat, ez datorrelako Langileen Estatuko 51. eta 52. artikuluetan ezarritako enplegu erregulazioko espediente batetik.

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

2017. urtean Bizkaiko Foru Aldundiko langileek ondoren aipatzen diren modalitateetan jaso dituzten kalte-ordainen PFEZen tributazioa:

- a) Kalte-ordaina jasotzen duten aurreratutako erretiroak
- b) Ezintasun iraunkor osoaren adierazpena duten langileak eta
- c) Enplegatu publiko izateari uko egitea

PFEZ arautzen duen 13/2013 Foru Arauko 9. artikuluko 5. idatz-zatiko azken paragrafoak xedatzen duen bezala, administrazio publikoek onetsitako Giza Baliabideen plan estrategikoen betearazpenaren ondorioz administrazio horietako langileek jasotzen dituzten kalte-ordainak salbuetsita daude, lan-erregulazioko espedienteekin berdinsten baitira. Kalte-ordain horien gehieneko kopurua bidegabeko kaleratzeen kasurako Langileen Estatutuak ezartzen duen nahitaezko muga izango da, hau da, 45 soldata-egun zerbitzuan emandako urte bakoitzeko (zerbitzu-aldia urtebete baino laburragoa izanez gero, kopuru hori proportzionalki hainbanatuko da), gehienez ere 42 ordainketa 2012ko otsailaren 11ra arte, eta hortik aurrera, 33 soldata-egun zerbitzuan emandako urte bakoitzeko (zerbitzu-aldia urtebete baino laburragoa izanez gero, kopuru hori proportzionalki hainbanatuko da), gehienez ere 24 ordainketa.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Artikulu hori irakurri besterik ez da egin behar salbuespenak bertan egiaztatzen direla ikusteko:

“13/2013 Foru Araua, 9. artikulua

Salbuetsitako errentak:

5. Langilea kaleratu edo kargugabetzeagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatutuan, hura garatzeko araudietan edo, halakorik balego, epaiak betearazteko araudian nahitaezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuetan finkatutako kalte-ordaina ezingo da nahitaezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu. Era berean, Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 103.2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, bazkideak kooperatiba uzteagatik jasotzen dituen kalte-ordainak ere salbuetsita egongo dira; lan-araudiak Langileen Estatutuko 52. artikuluko c) letran aipatzen den kargugabetze kasuetarako nahitaez ezartzen duen zenbateko bera dago salbuetsita.

Aurreko paragrafoetan jasotakoaren kalterik gabe, Langileen Estatutuko 51. artikulua arabera eginiko kaleratze kolektiboak direnean edo kontratuak estatutu horretako 52.c) artikuluan jasotako arrazoiengatik amaitzen direnean, zerga ordaintzetik salbuetsiko da estatutu horretan bidegabeko kaleratzeagatik nahitaezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia, betiere kaleratzeak eta kontratu-amaitzeak gertatu badira edo arrazoi ekonomiko eta teknikoengatik, edo ezinbesteko kasuengatik, edo antolaketa eta ekoizpeneko arrazoiengatik. Ordezkatza-kontratu batean dauden langileek lan-harremana desegin eta lan-jarduera lehenago uzteagatik langileek jasotzen dituzten kopuruak ere muga horiekin egongo dira salbuetsita.

Zenbaki honetan xedatutakoaren ondorioetarako, administrazio publikoek Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoietako bat oinarritzat hartuta giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoak aurreko lerroaldean aipatzen diren kaleratze kolektiboekin eta kaleratze nahiz kargugabetze objektiboekin parekatuko dira.

Zenbaki honetan ezartzen den kalte-ordain salbuetsia 180.000 euro izango da, gehienez.

Artikulu hau Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onesten duen apirilaren 8ko 47/2004 Foru Dekretuaren 7. artikuluan, langileek kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik jasotzen dituzten kalte-ordainei buruzkoan, garatzen da; honela dio hitzez hitz:

“Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluko 5. zenbakian ezarritako salbuespena aplikatzeko ezinbestekoa da langileak inolako loturik ez edukitzea enpresarekin. Kontrako frogarik izan ezean, ondoko kasuan langileak enpresarekin lotura daukala pentsatuko da: baldin eta kaleratu edo lana utzarazi ondoko hiru urteetan berriz ere enpresa berari, edo berarekin lotutako beste enpresa bati (lotura Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 42. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera izan behar da), zerbitzuak egiten hasi bada; nolana ere, lotura bazkide-sozietatearen arteko harremanen arabera definitzen bada, partaidetza %25ekoa edo handiagoa izan behar da (edo %5ekoa edo handiagoa, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2004ko apirilaren 21ean finantzatzen merkatuei buruz emandako 2004/39/EE Zuzentarauko III. tituluan definitzen diren



baloreen merkatu arautuetan negoziatzen diren baloreak izanez gero. Salbuetsitako gehieneko kopurua, 180.000 euro, langilearen laneratze edo lan-utzarazpen bakoitzeko aplikatuko da, kalte-ordaina ordaintzeko modua gorabehera”.

Giza Baliabideen Plan Estrategikoak martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Langileen Estatutuaren testu bategineko 51. artikuluan aipatutako arrazoiak egiaztatzen ditu. Horren arabera, aurreko gertaerak kaleratze kolektiboekin eta arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratze edo utzarapenekin berdinsteko arrazoiak gertatzen direla egiaztatzen da, eta horrenbestez, kalte-ordain horiek kargatik salbuetsita daudela, PFEZi buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan eta zerga horren araudian xedatzen den bezala, zeren, berezkoa duen legeriaren esparruan, langile kopurua (eta beraz enplegua) arrazionalizatzeko plana baita; zioen azalpenak hauxe dio:

“Urriaren 21eko 152/2008 Foru Dekretua onetsi zen Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Planaren ondoriozko arrazionalizazio-sistemak garatzeko, hain zuzen ere Funtzio Publikoaren erreformarako neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legean xedaturiko lege-ekarpenak betearazteko. Plan hura 1996ko ekainaren 25ean onetsi zuen Gobernu Kontseiluak.

Abenduaren 29ko 22/1993 Legearen bidez sartu zen abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarrian xedatu denez, autonomia erkidegoek eta tokiko korporazioek, beren burua antolatzeko ahalmenarekin bat, giza baliabideen beste arrazionalizazio-sistema batzuk har ditzakete enplegu planez gain, beren berezitasunetara egokitutako programen bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailearen 6ko 6/1989 Legea aplikatzen da. Lege horren 22. artikulua arabera, Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen muga barne egin beharko da, gobernu-organismoek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera betiere.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/207 Legearen 69. artikuluan, beren giza baliabideak antolatzeko planak onesteko ahalmena aintzatesten zaie herri administrazioei.

Hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Planak eta horren ondoriozko urriaren 21eko 152/2008 Foru Dekretuaren bidez, azaldutako marko juridikoaren baitan hauexek biltzen dituzte: Bizkaiko Foru Aldundiaren giza baliabideak arrazionalizatzeko zenbait neurri.

Neurri horien artean, beren zerbitzuko langilearen erretiroari buruzko neurriak daude, baina, gaur egun, neurri horiek garatzen jarraitu beharra dago, baita zerbitzu aktiboaren luzapenerako muga Giza Baliabideen Plan Estrategikoan sartu ere, halako moldez non, oro



har, funtzionarioen eta lan-itunpeko langileen nahitaezko erretiroa ohiko adinean ezarriko baita Gizarte Segurantzaren araubidearen edo kasuan kasuko mutualitatearen arabera.

Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoak jarraituriko ildoan kokatzen da; izan ere, 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 20ko 4/2013 Legearen zortzigarren xedapen gehigarrian, muga hori bildu da bere zerbitzuko funtzionarioentzat.”

Horrenbestez, Langileen Estatutuko 51. artikuluan xedaturikoa Herri Administrazioan ezarritako egokitzapena da, hari datxekion araudiarekin bat etorriz. Ekoizpeneko bitartekoetan edo tresnetan, laneko sistemetan eta metodoetan izandako aldaketak eta ekoizpena antolatzeko moduak aipatzen dira zuzenean. Administrazioan, plantillei eta lanpostuen zerrendei dagokie, eta hori arrazionalizatzeko onetsi zen hain zuzen ere Giza Baliabideen Plana.

Herri administrazioetako giza baliabideen plan estrategikoak, haien araudia ikusita, administrazioak bere beharretarako balia ditzaketen giza baliabideak arrazionalizatzeko eta egokitzeko programak direla esan daiteke, beren burua antolatzeko ahalmen espezifikoarekin bat etorrira eta aurretik langileriaren ordezkariarekin negoziatuta. Programa horietan, enplegu planak aplikatzeko araudi orokorrean ezarritako neurriez gain, borondatezko eszedentziarako, aurreratutako erretirorako, zerbitzu aktiboari uko egiteko edo zerbitzuan behin betiko baja hartzeko pizgarriak sar daitezke.

Bestalde, enpresa pribatuaren eta lan-zuzenbidearen eremuan, lana erregulatzeko espedienteak irazpen kolektiboak egiteko administrazio prozedurak dira, irazpen horiek beharrezkoak baldin badira enpresaren egoera ekonomiko txarra gainditzen saiatzeko (kausa ekonomikoak baldin badira) edo enpresaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko, bere giza baliabideak modu egokiagoan antolatuz (kausa teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak badira).

Horregatik, herri administrazioei datxekien giza baliabideen plan estrategikoen eta lan-zuzenbideari datxekion enplegu-erregulazioko espedienteen artean dauden antzekotasunak ikusita (bereziki kontuan hartuta biak bideratzen direla enplegatzailleak giza baliabideak beren antolamenduko behar objektiboetara egokitzeko eta arrazionalizatzeko), antzeko tratamendua ematen die PFEZFAk kontzeptu batean edo bestean jasotako pizgarriei eta kalte-ordainei, 9.5. artikuluan araupeturiko salbuespenaren ondorioetarako, eta sail eskudunak jakinarazita duenez plan estrategiko horien kasuan, antolamenduaren arloko kausak dira oinarria, Aldundiaren plantilla arrazionalizatzeko eta berregokitzeko, betiere Aldundian enpleguaren geroko bideragarritasuna bermatze aldera eta bere giza baliabideak egokiago antolatuz. Horregatik dago salbuetsita enplegatuek jasotako kalte-ordainaren zatia, baldin eta Langileen Estatutuan bidegabeko irazpenerako ezarritako nahitaezko mugak gainditzen ez badira betiere.

Hauxe dio hitzez hitz LEren 51. artikulua:

“Kaleratze kolektiboa 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, onartzen duena enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren legearen testu bateratua. (2015eko azaroaren 13tik indarrean dagoena).



1. “Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kaleratze kolektibo esango zaio ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arrazoietan oinarrituta kontratuak amaitzeari, laurogeita hamar eguneko epean amaitzeak honako hauengan badu eragina:

- a) Hamar langile, ehun langile baino gutxiago dituzten enpresetan.
- b) Ehun eta hirurehun langile arteko enpresetan, langileen % 10.
- c) Hogeita hamar langile, hirurehun langiletik gorako enpresetan.

Kausa ekonomikoak tartean direla joko da baldin eta enpresaren emaitzak ikusita agerikoa bada egoera ekonomiko negatiboa duela enpresak; adibidez, gaur egun galerak izatea edo gerorako galerak aurreikustea, edo diru-sarrerak nahiz salmentak luzaroan gutxituz joatea. Nolanahi ere, murrizpena iraunkortzat joko da hiru hiruhilekotan jarraian salmentak edo sarrera arruntak aurreko urteko hiruhileko berdinetan baino gutxiago badira.

Kausa teknikoak tartean direla joko da baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, ekoizteko bitarteko edo tresnen alorrean. Antolaketa kausak izango dira baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, langileen lan-sistemetan edo ekoizpena antolatzeko lan-moduetan. Eta ekoizpeneko kausak izango dira baldin eta aldaketak gertatzen badira, besteak beste, enpresak merkatuan sartu nahi dituen produktuen edo zerbitzuen eskarian.

.../...

Artikulu honetako lehenengo lerroaldean aipatutako kontratu-amaitzeen kopurua zenbatzeko, aipatutako aldiaren enpresaburuaren ekimenez gertatutako amaitze guztiak hartuko dira kontuan, lege honetako 49. artikuluko 1. paragrafoko c) lerroaldean aurreikusitako arrazoiaren indarrez barik langileari ez dagozkion beste batzuen indarrez badira, eta amaitutako kontratu kopurua gutxienez bostekoa bada.

Enpresak, artikulu honetan jasotako aurreikuspenak saihesteko, lege honetako 52.c) artikuluan xedatutakoaren babespean eta adierazitako mailaren azpitik bata bestearen jarraian laurogeita hamar eguneko aldiaren lan-kontratuak iraungitzen baditu, portaera hori onartzeko arrazoi berririk egon gabe, kontratu-amaitze berri horiek legeari iruzurra eginez gauzatu direla ulertuko da, eta deusezak eta ondoriorik gabeak direla deklaratu da.

Hortaz, egiaztatuta geratu da badaudela argudioak jarduketa horiek, Langileen Estatutuaren testu bategineko 51. artikulua betez, arrazoi objektiboen ondoriozko kaleratze kolektiboekin edo utzarazpenekin berdineteko; halakoetan, kalte-ordainak salbuetsita daude, hala xedatzen baitu Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 9. artikulua. Izan ere, administrazio publikoetako giza baliabideen plan estrategikoak, haien araudia ikusita, administrazioak bere beharretarako balia ditzaketen giza baliabideak arrazionalizatzeko eta egokitzeko programak direla esan daiteke, eta plan estrategiko horren kasuan beren antolamenduko behar objektiboetara egokitzen dira, sail eskudunak jakinarazi duen moduan.

Halaber, nabarmendu behar da ez PFEZa arautzen duen 13/2013 Foru Arauaren 9. artikuluan, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen



apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuko 7. artikuluan ez dela eskatzen giza baliabideen plan estrategikoak aldez aurretik ezarritako kausak izatea.

Hala ere, lantaldeak eta, hortaz, enplegua arrazionalizatzeko plan gisa konfiguratutako giza baliabideen plan estrategikoa sakon irakurtzean, Bizkaiko Foru Aldundiko Giza Baliabideen Planetik eratorritako arrazionalizazio sistemak garatzean onartu zena, Gobernu Kontseiluaren 1996ko ekainaren 25eko Erabaki bidez hasieran onartutakoa, ondorioztatzen da, lehenago esan bezala, enplegataileak dagozkion giza baliabideak arrazionalizatu eta antolaketaren beharrian objektiboetara egokitzen saiatzeko baliabideak artikulatzen dituen benetako plana dela, enplegua erregularizatzeko espedienteekin gertatzen den bezala; horrenbestez, aipatutako antolaketa kausak izan direla frogatu egin da.

Ez PFEZa arautzen duen 13/2013 Foru Arauko 9. artikuluan, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuko 7. artikuluan ez da aipatu azkentze kopuru zehatzik; ez da, inolaz ere ez, betekizun bat araudi aplikagarriari dagokionez; izan ere, azkentze ondorioetarako antzekotasuna ezarri duen araudiak finkatu beharko lituzke, hala badagokio, horretarako betekizunak.

2. BFAk eta GUFEk, 2012-2013 ekitaldietako erosteko ahalmenaren galeraren ziozko zorra itzultzeko, funtzionarioentzako akordioko 70.4. artikuluan eta lan-itunpeko langileentzako Hitzarmeneko 92.4. artikuluan bildua, handitu egin dute beren langile guztien berariazko osagarria, 2016an lanpostu bakoitzeko ordainsarien % 1. Esleipen horrek aldarazi egiten du funtzio publikoaren araudian ezarritako berariazko osagarriaren izaera. BFAk 1,4 milioi euro ordaindu ditu eta GUFEk 438.514 euro, gutxi gorabehera.

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

2017ko azaroaren 4an, Bizkaiko Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bitartez, honako hau ezarri zuen hitzez hitz:

(...) “Bizkaiko Lurralde Historikoko 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 7/2016 Foru Arauko Bigarren Xedapen Gehigarriko 4. Atala, Bizkaiko Foru Aldundiko eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko funtzionarioentzako 2016ko lan-baldintzen akordioko 70.1. artikulua eta Bizkaiko Foru Aldundiko eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko lan-itupeneko langileen lan-baldintzen hitzarmen arautzaileko 92.1. artikulua aplikatuz, 7/2016ko Foru Arauko 24. artikuluko 1. atalean agertzen den pertsonalaren nahiz aipaturiko artikuluko horretako 2. ataleko lehen paragrafoan agertzen denaren ordainketa onestea, zorrari dagokion % 1, lanpostuak betetzearen ziozko ordainsari osagarri gisa, hura aplikatzearen ondorioz doitu beharreko lanpostuen prezioen proportzioan, honekin batera doan eranskinaren arabera, baita 2014/2015 urteetako hitzarmenaren eta akordioaren 70.4. eta 92.4. artikuluetan aintzatetsitako konpromisoen guztizko portzentajetik kentzea ere.”



Bizkaiko Lurralde Historikoko 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 7/2016 Foru Arauan, bere aplikazio-eremua eta banatzeko irizpideak ezarri ditu pertsonalaren ordainsariei dagokienez, eta abenduaren 27ko 7/2016 Foru Arauko 24. artikuluko 1. Idatz-zatian nahiz aipaturiko artikuluko horretako 2. Idatz-zatiko lehen paragrafoan agertzen den pertsonala zehazten da (gehituriko eranskinaren arabera).

Aipaturiko kopuru horiek Estatuko 2001eko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 13/2000 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritako irizpideen menpe jarriko dira, 2017. urterako diru-kopuruak sartzearen ondorioetarako, ekitaldi horretarako enplegatu publikoaren aldizkako ordainsarien barruan finkatzeko.

Erakunde autonomoek, proportzionaltasun irizpidea jarraituz, ondoriozko diru-kopuruak sartu ahal izango dituzte urteko ordainsariak ezartze aldera.”

Bizkaiko Lurralde Historikoko 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 87/2016 Foru Arauko 24. artikuluan, ahaldun nagusiaren, ahaldun nagusi ordearen, foru diputatuen eta zuzendari nagusien eta Foru Administrazioaren zerbitzurako pertsonalaren eta aldi baterako pertsonalaren ordainsariak arautzen dira, eta baimen horren osagarria 2017rako Aurrekontuen Foru Arauko 4. Idatz-zatiko bigarren xedapen gehigarrian xedatu dena da. Bertan ezarritakoaren arabera:

“4. Baimena ematen zaio Bizkaiko Foru Aldundiari Akordio 70.1. eta indarreko Hitzarmeneko 92.1. artikuluetako konpromisoen ondoriozko zenbatekoa nahiz ordainketa kontzeptuak eta epeak negoziatzeko, aurreko urteetako hitzarmenetan eta akordio kolektiboetan ezarritako ordainsarrietan aipaturiko soldaten arloko araudiak aplikatuz, baita horiek guztiak ordaintzeko ere. Hartara, 24. artikuluan ezarritako funtsa erabili ahal izango da”.

Horregatik, 2017rako Aurrekontuen Foru Arauko 4. Idatz-zatiko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa beteta bertan azaldutakoak negoziatzeko asmoari dagokionez, eta Bizkaiko Foru Aldundiko nahiz Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko funtzionarioen lanbaldintzak arautzen dituzten akordioak eta hitzarmenak indarrean jarraituz eta bi testuetako 3. artikuluan xedatu dena aplikatuz (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2016ko uztailaren 22ko Akordioaren bidez onetsiak), Foru Arau horretako 24. artikuluan ezarritakoa aplika liteke; izan ere, halaxe egin zen 2017ko azaroaren 14ko akordioaren bidez, eta zehaztapan horren arabera, ordainsari gisa ordaintzea ezarri zen lanpostuak betetzeagatik, horien salneurrien proportzioan.

Horrexegatik, Aurrekontuen Foru Arauaren bidezko baimena argia izateaz gain, prozedurak ere Foru Arau horretako 24. artikuluan nahiz 4. artikuluko bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa bete du.

Berriazko osagarriaren izaera ez da aldatzen igoerak aplikatzeagatik, ezta honako araudi honengatik ere, ikus daitekeen bezala: eremu guztietan aplikatu behar izatea gainerako ordainsarrietatik bereizitako igoerak, edo ezarritako bestelako ordainsariak konpentsatzeko edo horietara iristeko erabiltzea.



Berariazko osagarria lanpostuen analisi funtzionalari dagokio, baita berariazko osagarri horretarako aintzat hartu beharreko osagaien alderaketari ere. Osagarria zenbatu ondoren, igoerak ezartzen dira, aplikatu beharreko araudiaren arabera zehazten direnak.

Alderdi jakin bat ordaintzen du ordainsariaren kontzeptu bakoitzak, eta horrek ez du galarazten hurrengo igoerek edo ondoz ondoko araudiek haiek aldatzea.

Ildo horretan, adibide asko dago eta, berariazko osagarria aztertzeari ekin baino lehen, eta argigarria denez, ohar bat egin behar da oinarritzko araudiari dagokionez.

Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuko apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 22. eta 23. artikuluetan, oinarritzko ordainsariak araupetzen dira, hain zuzen ere funtzionarioari ordaintzen zaizkionak lanbide sailkapeneko azpitalde edo talde jakin bateko kidegoaren edo eskalaren arabera, azken horrek azpitalderik ez badu, eta kidego edo talde horrek duen antzintasunagatik. Horien barruan sartzen dira soldata osagaiak eta aparteko ordainketen hirurtekoak (urtean aparteko bi paga izango dira), bakoitza oinarritzko ordainsarien zenbatekoagatik eta ordainsari osagarri guztiengatik, 24. artikuluko c) eta d) ataletan aipatzen direnak izan ezik.

Hirurtekoei buruz dioenez, gainera, diru-kopuru batean dautza, hain zuzen ere berdina izango dena lanbide sailkapeneko azpitalde edo talde bakoitzerako, baldin eta talde horrek azpitalderik ez badu, zerbitzuko hiru urte bakoitzeko.

Alabaina, 2010. urtean, defizit publikoa gutxitzeko ezohiko neurriak hartzeko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretu-legearen ondorioz aldatu zen, eta zenbateko desberdinak ezarri ziren aparteko pagen hirurtekoetarako, hileko zenbatekoekiko. Era berean, irizpide desberdina da talde desberdinetarako, kontzeptuei buruzko oinarritzko definizioa aldatu ez bazen ere.

Ildo beretik, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatu behar da, ezohiko ordainketa nahiz berariazko osagarriaren ordainketa gehigarria edo ordainketa gehigarri baliokideak oro har kentzeari dagokionez, baita ordainketok berreskuratzeko ere 36/2014 Legearen hamargarren xedapen gehigarriko bigarrenean ezarritako norainokoarekin eta muga guztiekin betiere.

Berariazko osagarriaren araudi zehatza aztertuta, une honetan estatu mailako araudia nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko araudia sartu beharra dago. Hala:

Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onetsi duen egungo urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak ez du berariazko osagarriaren definiziorik ematen, ezta osagarri horrek ordaintzen duenari buruzkoa ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren araudian Euskal Funtzio Publikoaren Legea eta horren arauen gaineko garapena ditugu.

Zehatzago, urteetan hainbat aldaketa izan dituzten ordainsariei buruzko dekretuetara jo beharra dago. Ondoren laburbilduko dira:

Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen ordainsariei buruzko uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuan ezarri zenez, lanpostuetako baldintza partikular konkurrenteak ordainduko ditu berariazko osagarriak, betiere erantzukizunaren eta zailtasun tekniko



bereziaren, bateraezintasunaren, arduraldi bereziaren, nekagarritasunaren eta arriskugarritasunaren arabera. Hasiera batean, formula bat ezarri zen berariazko osagarri horren zenbatekoaren mugatzat.

Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen 1991rako ordainsariei buruzko abenduaren 17ko 696/1991 Dekretuak aldatu egin zituen ordainsarien gehieneko kopuruak, berariazko osagarria barne, eta nabarmentzekoa da haren xedapen gehigarriak ezarritakoa: “Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailtako eta beren erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendek dakartzaten berariazko osagarrien kopuruak, egun indarrean daudenak, aldatu egiten dira, era berean ondorioak 1991. urteko urtarrilaren 1etik hasita izanik, IV. Eranskineko baliokidetasun-taularen arabera”. Hots, baliokidetasun-taularen arabera aldatzen direla zenbatekoak.

Ordainsariak aldatzeko hurrengo dekretuak (abenduaren 22ko 343/1992 Dekretua) 1992koak ezarri eta hasierakoaren 6. artikulua aldatzen du, hain zuzen ere berariazko osagarria araupetzen duena, hain zuzen ere, betiere osagarri horretako baldintzei eutsita, mugak aldatzeko eta, gainera, hauxe xedatzeko: euskal administrazio publiko bakoitzak berariazko osagarria ezartzeko baldintzak finkatuko ditu, administrazio publiko bakoitzeko lanpostuen zerrendetan bildu beharrekoa.

Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen ordainsariei buruzko abenduaren 20ko 333/1993 Dekretuak, abenduaren 19ko 516/1995 Dekretuak eta azaroaren 19ko 267/1996 Dekretuak, hurrenez hurren, berriz aldatzen dituzte ordainsariaren kontzeptuen zenbatekoak eta gehieneko mugak, eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetarako berariazko osagarriari dagokionez, baliokidetasun-taulara jotzen du aldaketa egiteko.

Bestalde, 1998rako araudiak, abenduaren 15eko 370/1998 Dekretuaren bidez, banaketa berdinari eusten dio, baina Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetarako baliokidetasun-taula kentzen du.

1993rako, 1995erako, 1996rako dekretu guztiak nahiz 1998rako dekretuak honelako xedapen gehigarria dute: “Dekretu hau aplikatzeak ez dakar berekin, inola ere, ezarriko ziratekeen guttizko ordainsariak aldatzea, eta indarrean jarraituko dute dekretua indarrean sartzean, halako moldez non, ordainsari osagarriak Dekretu honetako eranskinen arabera eguneratzeari esker, honako hau ahalbidetuko baitu: eraginpeko pertsonalak sortu beharreko guttizko ordainsariak bat etortzea arauaren hartzaileak diren Euskal Administrazio Publikoetan ezarritakoekin”.

Xedapen gehigarri hori 1992rako dekretuko hirugarrena da; izan ere, lanpostuen lehen zerrendak onetsi eta argitaratu behar zirela adierazita, hain zuzen ere dekretuan bildutako aurreikuspenak eta bestelakoak aintzat hartu beharrekoak lanpostuen sailkapenetatik igarotzeko, hauxe zioen: “Dekretu hau aplikatzeak ez dakar berekin, inolaz ere, ezarriko ziratekeen eta dekretua indarrean sartzen indarrean zeuden guttizko ordainsariak aldatzea. Horren ondorioz, aurreko xedapenetan bildutakoak bete ondoren, bidezkoa da nominak egokitzea Dekretu honetako eranskinetan ezarritako zenbatekoen arabera eta, beharrezkoa bada, ordainsari osagarriak egokitu, zertarako-eta eraginpeko pertsonalak sorrarazitako



guztizko ordainsariak bat etortzeko arauaren hartzaileak diren euskal administrazio publikoetan ezarritakoekin”.

1999an, euskal administrazio publikoetako funtzionarioen ordainsarien dekretua bigarrenaz aldatzeko eta urte horretako ordainsariak ezartzeko abenduaren 28ko 452/1999 Dekretuak erregulazioa desberdina xedatu du, halako moldez non, indargabetzearen bidez berariazko osagarriko zenbatekoan gehienekoak ordainsarien dekretuko 6. artikuluko bigarren ataletik kentzeaz gain, hauxe ezarri baitu bigarren artikuluan: “Lanpostu bakoitzari dagokion berariazko osagarriak, 1999an, %1,8ko gehikuntza izango du, 1998koen aldean; eta hori horrela da, hala dagokienez, Euskal Administrazio Publikoen eremuan, zailtasun tekniko, dedikazio, erantzukizun, nekagarritasun edo arrisku maila beretsuko funtzioak ordaintzeko ezarrita daudenekin bidezko erlazioa daukaten lanpostuei dagozkienak egokitzeko aukeraren kaltetan gabe”.

Baina, hauxe dio jarraian gainera haren Xedapen Gehigarri Bakarrak: “Dekretu honen ezarpenak ez du inolaz ere ekarriko kontzeptu ezberdinengatik jasotzen diren ordainsarien gutxitzea. Alderik bada, berariazko osagarriari egotziko zaio”.

Euskal administrazio publikoetarako ordainsariei buruzko azken dekretua da, zeren eta ondoren apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua onetsi baitzen 2005ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsariei buruzko araudira mugatzen dena.

Estatuko 2007rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 42/2006 Legearen 21.4. artikuluan, 2010ean bukatu zen serie bat abiarazi zen, non honako hau ezartzen baitzen: “Artikulu honetako Bi atalean ezarritakoaz gain, 100eko 1eko igoera izango dute Funtzio Publikoaren Erreformarako Neurriari buruzko abuztuaren 2ko 30/1994 Legearen ordainsarien erregimena aplikatzearen ondorioz jardunean diren funtzionarioen soldatek, baita administrazio eta estatu erregimenaren menpeko gainerako langileen soldatek ere, berariazko osagarria edo kontzeptu egokia handitzeko erabiliko dena, hain zuzen ondorengo ekitaldietan osagarri horiek egokitzeko. Horri esker, 14 pagatan jasoko dituzte urtean, hamabi arruntetan eta aparteko bi pagatan ekainean eta abenduan”.

Aurreko urteetan, berriz, antzeko aurreikuspenak izan ziren destino osagarriari dagokionez, harik eta aparteko pagetan %100 bihurtu zen arte.

Horrez gain, eta betiere berariazko osagarriari dagokionez, hauxe dio hitzez hitz Funtzio Publikorako Estatu Idazkaritzak 2010-2012ko elkarrizketa sozialaren baitan Gobernuak eta Sindikatuek funtzio publikorako lortutako akordioa argitaratzeko 2009ko urriaren 22an emandako ebazpenak dakarren akordioko 48. atalak: “Aurretik esandako igoerez gain, lortutako akordio ekonomikoak beteko direla bermatzen da, 2010-2012 aldian aplikatu beharrekoak. Horregatik, administrazio publikoek beren eskumenen baitan aurretik sinaturiko itunetan edo akordioetan lorturiko soldata hobekuntzetatik aparte aplikatuko dira ordainsarien aurreko igoerak, horien artean berariazko osagarri osoa aparteko pagetan sartzekoak barne”.



Horrenbestez, egiazaturik gelditzen da estatu mailako nahiz EAE mailako araudiaren ikuspuntutik BFAk eta GUFEk aplikaturiko igoerak ez dakarrela aldaketarik funtzio publikoari buruzko araudian ezarritako berariazko osagarriaren izaeran.

3. Seed Capital de Bizkaia, S.A.k kontratu mugagabea egin du, plantillan plaza hutsik egon gabe ekitaldiko aurrekontuan. Beraz, ez da bete BLHko 2017rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 7/2016 Foru Arauko 29. artikulua.

SEED CAPITAL BIZKAIA, S.A.REN ALEGAZIOA

2017ko eta 2018ko ekitaldietan, igoera ikaragarri handia izan du hiru funtsen eta Seed Capital de Bizkaiak (hemendik aurrera SCB) kudeatzen duen arrisku-kapitaleko sozietatearen jarduerak; izan ere, gero eta handiagoa da partaidetza duten enpresen eta parte hartzeko maileguren zorroa, eta inbertsioon jarraipena egiteko ahalegin handiak behar dira horretarako.

Horiek jarduera guztiak egiteko, bi pertsona gehiago kontratu ziren sozietatearen giza kapitala indartze aldera.

Sozietateko pertsonala handitzeko behar hori ez zegoen aurreikusita SCBren 2017ko ekitaldirako aurrekontuak gauzatu ziren datan eta, beraz, plaza horiek ez ziren sartu aurrekontu horietako 2017rako plazen aurreikuspenean.

SCBko pertsonala handitzeak sozietatearen Pertsonal Gastuan ekarriko zuen igoera logiko hori finantzatzeko, aurrekontuko aldaketa eskatu behar izan zen, non pertsonalaren eta gastuaren igoera horren arrazoia azaltzen baitzen.

Organo eskudunek aurrekontua aldatzeko eskaera hartu eta onetsi zuten, Ekonomia Sustatzeko Sailak nahiz Ogasun Sailak, eta onarpena 2017ko abenduaren 5eko 2164 Foru Aginduan agerrarazi zen.

Aurrekontua aldatzeko eskaera doa honekin batera.

Ondorioa: •

- Nahiz eta SCBko plantillan bi plaza gehiago izatea ez zegoen aurreikusita 2017ko lehen aurrekontuetan, aurrekontua aldatzeko eskaera izan zen ekitaldian arrazoi horrengatik, non argi eta garbi azaltzen baitzen igoera. Ogasunak onartu zuenez gero, ondoren aurrekontuan jasota gelditu zen gehikuntza.

4. SPEko sei erakundek argindarraren hornidura kontratatu dute (722.657 euro), BizkaiKOA EPEFk Ondare eta Rekalde aretoetako publikoarentzako arreta zerbitzua (96.234 euro), Bizkaiko Basalan, S.A.U.k zuhaizti 1 moztu eta kentzeko zerbitzua (212.355 euro), Palacio Euskalduna, S.A.U.k gas hornidura (163.804 euro), Garbiker, S.A.U.k beste zerbitzu eta hornidura batzuk (610.308 euro), betiere publizitate eta lehia printzipioak errespetatu gabe (ikus A.10.2)



BIZKAIKOAREN ALEGAZIOA

Lehenbiziko ondorioetako lehenbizikoari dagokionez, argindarraren horniduraren kontratazioa dela-eta, merkatuan zeuden preziorik hoberenen arabera egin ziren kontratazioak. Audax enpresarekin eginiko kontratazioa, adibidez: merkatuan zeuden salneurriak berrikusi ondoren, preziorik merkeena eskaini zuen, eta preziorik baxuena lortu ahal izan zen, posible zenean. Horren ondorioz, BizkaiKOak hainbat enpresarekin egin zuen kontratazioa, enpresetako batek ere eskusibitatea izan gabe.

Nolanahi ere, 2017ko azaroaren 21ean, Bizkaiko Foru Aldundiak argindarraren kontratu zentralizatua esleitzea erabaki zuen, eta horrekin bat egin zuen bat Bizkaikoa EPEFk.

Ondare eta Rekalde aretoetako publikoarentzako arreta zerbitzuaren kontratazioa dela-eta, 2017ko hasieran, ezustean, Ondare aretoan publikoarentzako arreta zerbitzua ematen zuen BizkaiKOako pertsonala aldatu behar izan zen, eta lanpostu hori azpikontratuta zegoenez BizkaiKOA erakundeak kudeaturiko gainerako ekipamenduetan jarraituriko ilodarekin bat etorritz, eta premiazko gaia zenez, Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak S.L. kontratatu zen areto horretako publikoentzarako arreta zerbitzua behin-behinean, kontratu txikiaren bidez.

Ondorengo hileetan, Aretoari buruzko erabakia hartzeko zain gelditzea erabaki zen areto horretako zuzendariaren ustezko erretiroari aurrea hartuz. Horri esker, zenbait aldaketa egiteko modua izango zen Rekalde eta Ondare aretoen kudeaketa bateratzeko BizkaiKOaren beste ekipamenduetan abiarazitako bidean.

Ondare Aretoko zuzendariak 2017ko irailaren 30ean behin betiko erretiroa hartu ondoren (ezin arreak zitekeen eta zuzendariak aukeratu zezakeen bere kontratu motan oinarrituta) BizkaiKOA erakundeak kudeaturiko bi erakusketa aretoak batera kudeatzeko aukera eta egokitasuna aztertzen hasi zen. Gogoeten ondoren, 2017ko amaieran, bi aretoak kudeatzeko lehiaketa bakarra formalizatzea erabaki zen, eta pleguak idazteari ekin zitzaion.

Horregatik guztiagatik, hots, BizkaiKOako pertsonala premiaz ordeztu beharra, aretoaren ustezko erretiroa eta, horren ondorioz, Rekalde eta Ondare aretoak batera kudeatzeko balizko erabakia, 2017an ezin izan da bi aretoak kudeatzeko lehiaketa martxan jarri, eta bi aretoetako publikoarentzako arreta lana Alaiki Zerbitzu Gizakulturalak S.L. enpresaren zerbitzuen bidez bete behar izan da.

APARKABISAREN ALEGAZIOA

2016ko uztailaren 20ko 12/2016 Foru Dekretuak Bizkaiko Foru Kontratazio Zentralaren eraketa sortu eta arautzen du.

2016ko irailaren 14an, Aparkabisaren Administrazio Kontseiluak sozietatea Bizkaiko Kontratazio Zentral Foralari atxikitzea erabaki du.

2016ko urriaren 16an, BFaren Kontratazio Zentral aipatuak idatzia igorritz, sozietate horri jakinarazi zitzaion zenbait akordio 2017. urtean zehar lizitaziora ateratzeko izapideak hasi zirela, 2018. urtean horiei ekiteko; tartean energia elektrikoa hornitzea. Prozesu horretan Aparkabisak dagoeneko eman ditu aipatutako lizitazioa prestatzeko eskatutako datuak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hori guztia, besteak beste, publikotasun eta lehia printzipioak betetzeko.

ENERGIA ELEKTRIKOA hornitzeko ESPARRU-AKORDIOA.

2018. ETA 2019. URTEAK

1. Hautatzeko prozedura hastea: Bizkaiko Aldundiaren Erabakia, 2017ko abuztuaren 23koa, gai-zerrendako 5. gaia.

Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundirako eta esparru-akordio zehatz horri atxikitako erakunde bakoitzerako banakapena eman da.

2	Aparkabisa, S.A.	314.219,39€	65.986,07€	380.205,46€
---	------------------	-------------	------------	-------------

3. Esparru-akordioaren ondorioa: Bizkaiko Foru Aldundiaren Erabakia, 2017ko azaroaren 21ekoa, gai-zerrendako 9. gaia.

AZPIEGITURAK ERAKUNDEAREN ALEGAZIOA

2016ko uztailean, 9 enpresa merkaturatzaileari eskaintza ekonomikoa eskatu ondoren, kontratua sinatu zen, urtebetez, AZPIEGITURAK erakundeko zentroetarako argindarra hornitzeko IBERDROLA CLIENTES enpresarekin. Kontratuak % 11,6ko aurrezpena zekarren ordura arte kontzeptu horrengatik ordaintzen izan zenaren aldean.

2017an, Bizkaiko Foru Aldundiko Erosketen Zentralak argindarra hornitzeko lehiaketa publikoa deitzea aurreikusita zuela jakinarazita, ez zen atzera eskaintzarik eskatu.

2017ko uztailean, AZPIEGITURAK, SAMPeK esparru-akordioarekin bat egitea formalizatu zuen argindarra hornitzeko Bizkaiko Foru Aldundiari eta Atxikitako Erakundeei, 2018. eta 2019. urteetarako deitua.

Lehiaketa publiko horren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2017ko azaroaren 21ean, IBERDROLA CLIENTES enpresari esleitu zion Bizkaiko Foru Aldundiarentzako eta Atxikitako Erakundeentzako argindarraren hornidura; erakunde horien artean dago AZPIEGITURAK, SAMP.

2016ko uztailean kontratua sinatuta eta isilunez esparru-akordioaren bidez behin betiko esleitu arte luzatuta, aukerarik hoberena izan zen AZPIEGITURAK erakundearentzat alde ekonomikotik; izan ere, halaxe egiaztatu da kasu bietan enpresa hornitzailea IBERDROLA CLIENTES enpresa izanik.

BASALANEN ALEGAZIOA

- “Errepideetako zuhaitzak moztea eta kentzea”

Bizkaiko errepide-sareko hainbat tokitako jarduketa bereziak dira, errepideetako bazterretan segurtasuna emateko eta arriskuak ekiditeko, hainbat kausa tarteko hala nola ezpondak behera erortzeko arriskua, zuhaitzak erortzea edo zuhaitzak galtzadara erortzeko arriskua, etab. Izan ere, neurri handi batean premiaz jokatzeko eskatzen dute.

2017ko ekitaldian, prozedura negoziatuen bidezko kontratazioa egin da, eta hainbat enpresak hartu dute parte lehian, kontratazioaren unean indarrean zegoen aurreko



kontratuen legearekin bat etorri. Zehazki, 2017ko ekitaldian 5 enpresa gonbidatu dira hainbat prozeduratarako, eta horietatik 3 esleipendun ezberdin gertatu dira, eskaintzarik onena aurkeztu dutelako. Basalanentzako kontratazio jarraibideek bat etorri egin dira prozedura guztiak; indarrean zeuden jarraibideok une hartan.

Zehazki, 212.355 euroko diru-kopurua 58.500, 58.600 eta 58.400 euroko hiru kontratari dagokie, gehi BEZ. Bizkaiko Lurralde Historikoko hainbat tokitan zuhaitzak mozteko eta kentzeko lanak izan dira. Zerbitzu horiek guztiak diru-kopuru horiei aplikatu beharreko Prozedura Negoziatuaren bidez izapidetu dira, 60.000 eurotik beherakoak izategatik. Izan ere, indarrean zeuden sektore publikoaren kontratuen legean 2017. urtean (espediente osoaren kopia eman zaio epaimahai honi).

3 eskaintza eskatu zitzairen hainbat enpresari prozedura bakoitzean eta, Kontratazio Mahaiak eskaintza jaso eta berrikusi ondoren, kasu bakoitzean eskaintzarik merkeena aurkeztu zuen enpresari esleituko zitzaion Azkenean, kontratua izenpetu zen.

BEAZ-EN ALEGAZIOA

Aipaturiko zenbatekoari dagokionez, kontuan izan behar da hiru kontratazio desberdini dagozkiola; horietan hartu du parte BEAZ, S.A.U.k hainbat alditan eta hainbat prozeduraren bidez.

1) Bizkaiko Parke Zientifikoarekin eta Teknologikoarekin kudeatzen duen BIC BIZKAIA inkubadoraren argindarraren hornidura. 102.492,31 euroko zenbatekoa da, BEZ barne (84.704,39 euro BEZik gabe), eta zereginen banaketaren eta inkubadoraren gastuak 2015eko ekainean bere gain hartzearen ondorioz BEAZ, S.A.U subrogatu deneko Parkearen kontratuari dagokiona.

Parke Zientifikoak eta Teknologikoak hasieran eginiko kontratazioa gauzatu da, eta sozietate publiko horren kontratazio prozedurei eta akordioei dagokie, hain zuzen ere parkean bertan beharrezkoak diren azpiegitura elektrikoaren zerbitzuari eta eraikuntzari aurre egiteko, halako moldez non hornidura baldintza egokietan ematea bermatuko baita, indarreko kontratazioari buruzko legea errespetatuz.

Nolanahi ere, 2018rako jakinarazi zitzaion Parkeari eurek hartu behar dutela beren gain gastu mota hori.

2) Sabino Arana 8 eraikineko zerbitzu orokorren hornidura elektrikoan, BEAZ, S.A.U.ren bulegoetako Bilboko egoitzan. 12.891,60 euroko zenbatekoa da, BEZ barne (10.653,80 euro, BEZ barik), eraikinaren jabea zen Azpiegiturak, S.A.U.k zuen kontratuan BEAZ, S.A.U.ren subrogazioa gertatu izanaren ondorioz.

3) BEAZ, S.A.U.ren bulegoen hornidura elektrikoa, Bilbon, guztira 21.224,95 euro BEZ barne (17.540,97 euro, BEZ barik). 2017ko uztailaren erdialdean jakinarazi zigitenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratazio zentrala zerbitzuaren lizitazioa egitekotan zen eta, beraz, bat egin genuen zerbitzuarekin, baina kontratua ez da formalizatu esleipendunarekin 2017ko abenduaren erdialdera arte, 2018ko urtarrilean indarrean sartzeko.

GARBIKERREN ALEGAZIOA

1) Energia elektrikoa

Aipaturiko zenbatekoa dela-eta (100 milioi euro), kontuan hartu behar da GARBIKER. A.B. S.A.k une desbedinetan formalizaturiko eta potentziaren aldetik eta zerbitzuaren aldetik homogeneoak ez diren beharrei (hornidura hutsa edo instalazio eta talde elektrogeno gehigarriak) erantzuteko hainbat instalaziotako 17 kontrataziori dagozkiola.

Zehatzago, honako kontratu hauek biltzen dira zenbateko horretan:

ERREFERENTZIA KONTRATUA	INSTALAZIOA
271419805	BILBOKO BULEGOA
381482704	AMOROTOKO HONDAKINDEGIA
271420315	JATAKO HONDAKINDEGIA
384541874	DURANGOKO TRANSFERENTZIA INSTALAZIOA
381483277	ORKONERA HONDAKINDEGIA
271420947	GERNIKAKO TRANSFERENTZIA INSTALAZIOA
472819513	ZALLAKO TRANSFERENTZIA INSTALAZIOA
386723552	ONTZIAK BATZEKO ZORNOTZAKO BAPILOIA
275398067	BERRIATUKO TRANSFERENTZIA INSTALAZIOA
440792460	ARTIGASEKO KONPOSTEGIA
273033517	IGORREKO TRANSFERENTZIA INSTALAZIOA
443312217	BERMEOKO GARBIGUNEA
271424709	ERANDIOKO GARBIGUNEA
271420947	GERNIKAKO GARBIGUNEA
271421538	GETXOKO GARBIGUNEA
271422841	KARRANTZAKO GARBIGUNEA
271421745	SANTURTZIKO GARBIGUNEA

Bestalde, egoera hori konpontzeko aukerak ikusita, 2017an Bizkaiko Foru Aldundiaren Esparru-akordioari atxikitzeko posibilitatea sortu zen 2018-19ko argindarraren horniduran eta, beraz, kontrataziorako aukera hori baliatu zen.

2) Edukiontzi horiak hornitzea eta mantentzea.

Gaur egun, Garbikerrek, gaur egun, 3.700 edukiontzi hori ditu 112 udalerritan kokaturik Hasierako hautaketa-prozesua egin ondoren, ezinbestekoa da edukiontzi ereduari eustea.



Hala, edukiontziak husteko eta ontziak batzeko prozesua uniforme izatea bermatzen da. Horri esker, ez da beharrezkoa jarduera horretarako inbertsio gehiago gauzatzea.

Aldi berean, THESAL enpresak soilik fabrikatzen du edukiontzia; izan ere, horren diseinu industrialaren eta fabrikazio moldeen jabea da eta, beraz, ezin eros dakioke aukerako beste edozein hornitzaileari.

Alabaina, egoera erregularizatzeko aldera, 2018tik hasita berriz ere edukiontzi gehiagorik ez erostea erabaki zen, egungoak ikusitako beharren arabera banatuta, eta edukiontzien lizitazio berria prestatu 2018rako edo 2019rako.

3) Edukiontzi horiak garbitzea.

2017ko irailean egoera erregularizatzen hasi zen beren beregi eginiko lehiaketa publiko berriaren bidez. 2018ko otsailaren 2an gauzatu zen, lehenago egiterik ez zelako izan. Hortaz, luzatuz joan zen ordurako bukatuta zegoen kontratua.

4) Makineria konpontzea

Nahiz eta saldoa 170 mila eurokoa izan, bi enpresa desberdinen 61 fakturari dagokie, eduki desberdinekoak eta makineria desberdinekoak; gehienak ezinbestekoak dira ekitaldia hasteko. Horietatik guztietatik batek bakarrik gaitzen du banaka 18 mila euroko zenbatekoa (BEZ aparte), eta premiazko konponketa izan zenez, ezinezkoa izan zen ad hoc prozedura burutzea.

6. Garbiker, S.A.U.k lau ibilgailu berri erosteko, guztira 495.616 euro BEZ barne, Sozietatearen kontratugilearen profilean argitaraturiko eta aldi berean izapideturiko hiru prozedura ireki dira. Lotetan egin behar den ibilgailu horien aldi baterako kontratazioa eta, lote guztien gutxi gorabeherako balioa kontuan izanik (SPKLTBren 88.7. art.), araudi bateratu horren menpeko kontratuen prozedurako arauak eta publizitateko arauak jarraitu behar ziren (ikus A.10.2, 11, 12 eta 13 espedienteak).

GARBIKERREN ALEGAZIOA

Hiru lizitazioen izen orokorra “ibilgailuak” izan arren, bakoitzaren berezitasuna dela-eta desberdinak dira izaera eta eraketa. Hortaz, baliteke hornitzaile desberdinak izatea funtzionaltasun zehatzagatik.

Hala, 11. espediente honen helburu bakarra traxio-burua da –txasi handiagorik gabe- Garbikerrek hodankinen kudeaketan darabiltzan atoi mota desberdinekin lotzeko.

Bestalde, 12. espedienteko lizitazioak ibilgailu zurruna biltzen du, bilketa-kaxa batekin lotzen dena, Bizkaiko udalerrietan kokaturiko bilketa selektiboko edukiontzi horietan bildutakoa gordetzeko, hiriko edukiontzi horiek altxatu eta husteko garabi baten bidez (karbonodun altzairuzko S-235-JR20 edukiontziak, 20 m³-ko edukierakoak).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Azkenik, Garbikerren instalazioen arteko edukiontzia garraiatzeko hiru ekipamenduri dagokie 13. espedientea; edukiontzia arrastatzeko eta jartzeko kakodun mekanismoa dakarrena (beirazko zuntzekoa, 3,5, m³-ko edukierakoa).

Horregatik, zenbateko bakoitzari legez dagokion prozedura jarraitu da kontratazio bakoitzean.

7. Garbiker, S.A.U. ren parke mugikorrari atxikitako ibilgailuak, ekipamendu mugikorrak eta makineria mantentzeko eta konpontzeko zerbitzua emateko esparru-akordioa luzatu egin da 2016ko abuztuaren 31n bukatu zenetik. Esleipendunekin eginiko gastua, 2017an, 507.162 euro izan zen orotara.

GARBIKERREN ALEGAZIOA

Kontratuak agortuta egonik ere, kontratuen esleipendunei agindu zaizkie lanak, Bizkaiko Foru Aldundiko erosketen zentralak zerbitzuaren lizitazioa noiz egingo zain. Alabaina, 2018ko maiatzaren 2an, esparru-akordio hori aurrera eramaterik ez zegoela jakinarazi ziguten hainbat zioengatik hala nola ibilgailu mota desberdinak, kokapen geografikoa, etab.

Horregatik, sozietateak berak berariazko lizitazioa prestatu du, eta horren lizitazioa ustez 2019an egitekoa da.

BARNE-KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO ONDORIOAK

III.1 AURREKONTUA, KONTU OROKORRA ETA KONTABILITATEA

- *Interbiak, S.A.U. ren aurrekontuan ez dago sartuta urte askotako inbertsioen eranskina. 2017ko abenduaren 31n, sozietate horrek 20,6 milioi euroko inbertsio konpromisoei eusten die.*

OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ALEGAZIOA

Sozietatearen Memorian dago jasota urte asotako inbertsioen eranskina.

2020rako aurrekontuetan, urte askotako inbertsioen eranskin bereizia sartuko da.

- *SPEren zortzi erakundek gainditu egin dituzte “Pertsonal gastuak”, “Kanpoko zerbitzuak”, “Ibilgetu ukiezina”, “Ibilgetu materiala” eta/edo “Finantza inbertsioak” aurrekontu-baliakizunak aurrekontu aldaketa egokiak onetsi gabe.*

LAE-REN ALEGAZIOA

2017ko ekitaldian, Irabazien eta Galeren Kontuan, kontzeptu horretarako 172.000 euro ezarri dira; kontabilitate urtea bukatzean, benetan eginiko gastua 176.784,91 eurokoa da. Aurreikuspena gainditu da, guztira 4.784,91 euroan, aurrekontuan jasotakoa baino % 2,78



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

gehiago. Aurrekontuei buruzko araudiaren arabera, aurrekontu aldaketa egin beharko zen. Azalpena oso erraza da: aurrekontuko aurreikuspena irailean egiten da. Ekitaldi honetan, hain zuzen abenduan, BFAko zerbitzu informatikoei erabakiak hartzen dituzte Bizkaiko Foru Aldundiko erakunde publiko guztien mailan; zenbait eragiketa burutzea da kontua eta, azkenean, 2017ko abenduaren 31n, faktura dakarkigute eta iraileko gure aurreikuspena desitxuratzen dute.

III.3 KONTRATAZIOA

- *BizkaiKOA EPEFk, Aparkabisa, S.A.k eta Azpiegiturak, S.A.U.k, 2017. urtean, 160.743, 243.195, eta 668.154 euro gastatu dituzte, hurrenez hurren, iraungitako kontratuengatik Kontratu berriak aurreko kontratua iraungi baino lehen izapidetu ziren (ikus A.10.2)*

BIZKAIKOAREN ALEGAZIOA

2017ko ekainaren 30ean, garbiketa zerbitzua emateko kontratua iraungi zen, hain zuzen BizkaiKOA erakundeak kudeaturiko gunetan UNI 2 enpresak betetzen zuen zerbitzua 2013an deituriko lehiaketaren esleipenduna zen aldetik. Hala egin zen, lehiaketan ezarritako epea bete ondoren eta lehiaketako pleguetan bildutako ondoz ondoko luzapenak onetsi ostean.

Zerbitzua emateko epea iraungita zegoenez, BizkaiKOA erakundeak beharrezko pleguak prestatzeari ekin zion garbiketa lehiaketa berriaren deialdirako, garbiketa lanei jarraipena emateko.

Alabaina, Bizkaiko Foru Aldundiak urtarrilaren 17ko 3/2017 Foru Dekretua onetsi zuen, gizarte, ingurumen eta beste politika publiko batzuei buruzko beste klausula batzuk ezartzeko, gure erakundeari urte bereko otsailaren amaieran jakinarazia. Ondorioz, lehiaketa horretako pleguen gaineko lehenbiziko berrikuspen sakona egin behar izan zen.

Aldi berean, Foru Aldundiko Lehendakaritza Sailak jakinarazi zuen BizkaiKOA erakundeak bere gain hartu behar zuela Rekalde Erakusketa Aretoari dagokion gunea kontratatzeke kudeaketa, eta horrek ere behartu egin gintuen lehendik prestaturiko plegu osoa berraztertzea.

Bi inguruabar horiek zirela-eta, 3/2017 dekretua onestea eta Rekalde Aretoa garbitzeko zerbitzua geureganatzea alegia, atzerapenak gertatu ziren aipaturiko pleguak prestatzeko lanetan, eta horren ondorioz, lehiaketa horretako deialdia ez zen onetsi haren administrazio kontseiluak 2017ko uztailaren 18an eginiko bilkurara arte.

AZPIEGITURAK SOZIJETATEAREN ALEGAZIOA

Hauxe ezarri zen 2011. urtean deituriko Bizkaia Pilotalekua, Kirol Etxea eta Eranskinak kudeatu, mantendu, artatu eta ustiatzeko kontratuaren prozedura irekiaren bidez lizitatzeke Administrazio Klausula Berezien Pleguko 3.4. artikuluan:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

“4. Kontratua bukatzean, dela epea iraungitzeagatik, dela suntsiarazpen, lehengoratzeko edo beste edozein arrazoiengatik ohikoa ez den moduan bukatzeagatik, esleipendunak zerbitzuaren kudeaketarekin jarrai dezala erabaki dezake AZPIEGITURAK, S.A.U.k harik eta beste esleipendun batek zerbitzua zuzenean bere gain hartu arte, edo zuzenean AZPIEGITURAK, S.A.U. berak, betiere hala denean bidezkoak diren konpentsazioei kalterik egin gabe”.

Kontratua bukatzeko egunean (2017/06/08) kontratu berriaren lizitazioa arribidean zela-eta, beharrezkotzat jo zen zerbitzuaren kudeaketarekin jarraitzea aurreko esleipendunarekin, pilotalekuaren jardura eta kirol federazioen eraikineko jardura ez ukitzeko, ohiko funtzionamenduaren aldetik nahiz instalazio horietako egitekoak ziren egitarauko ekintzen aldetik.

Antolaketa eta prozedura arrazoiak tarteko, ezin izan zen burutu esleipen berria 2018ko otsailaren 26ra arte, hain zuzen lizitazio berrirako eraturiko Kontratazio Mahaiak esleipen proposamena onetsi zuen arte.

- *Bizkaiko Arkeologi Museoan ikerketa, zabalkunde eta artapen programak garatzeko kudeaketa eta laguntza kontratuaren lizitazioa argitaratu du BizkaIKOA, EPEFk BAOn, 967.758 euroan esleitu (BEZ barne). 2013an esleitu zenaren jarraipena da kontratua, eta lizitazioa DOUEn argitaratu zen. Barne hartzen dituen zerbitzu motak eta lizitatzailerik bakarrik lehiatu dela ikusita, lizitazioari emandako publikitate handitu beharko litzateke, 2013an egin zen bezalaxe (ikus A.10.2 espedientea).*

BIZKAIKOAREN ALEGAZIOA

Bizkaikoaren kontratazio arauetan eta legean ezarritakoak izan ziren Arkeologi Museoaren lehiaketarako publikitate irizpideak, hots, iragarkia kontratugilearen profilean, BAOn eta Bizkaian gehien hedaturik dauden bi egunkaritan argitaratzea; halaxe dago dokumentaturik kontratazio-espedientean.

- *Bizkaia-Bizkaialde Fundazioak urtero egiten du, prozedura negoziatuaren bidez, bere eginkizunen garapenari datzekion administrazio lanak burutu, jarduerak dinamizatu eta baliabideak atzemateko zerbitzuaren lizitazioa. 2017ko gastua 93.177 euro izan zen, BEZ barne. Kontratuaren esleipena ezinbestekoa da Fundazioak bere helburuak bete ditzan, ez duelako bere zerbitzurako langilerik. Ez dago justifikaziorik aldizkakoa eta aurreikusteko modukoa den prestazio hori zatikatzeko; hainbat ekitalditako lizitazioen zenbatekoak metatu eta aplikatu beharreko prozedura erabili beharko lirateke.*



BIZKAIA-BIZKAIALDEREN ALEGAZIOA

Bizkaia Bizkalde Fundazioak, urtero, zerbitzuaren kontratazioa kudeatu izan du, bere eginkizunen garapenari datxekion administrazio lanak burutu, jarduerak dinamizatu eta baliabideak atzemateko zerbitzua ematean datzana, prozedura irekiaren bidez, Fundazioaren Patronatuak onetsitako kontratazio tresnetan xedatu denarekin bat etorriz.

Urtebeterako kontratazioa izaten da, funtsean ez delako ziurra Fundazioaren jarduerak jarraitzea, zeren eta, askotan, haren baitan eztabaidatu baitira Fundazioaren bideragarritasuna eta jarraikortasuna. Egoera horren aurrean, ez da egokitzat hartzen indarraldi luzeagoko kontrataziorik egitea. Horrez gain, Fundazioaren aurrekontuak ez du sarrera finkorik, baizik eta urtero ekarpenak lortzen dira, publikoak nahiz pribatuak, eta horrekin ez dago bermatuta epe ertainerako bideragarritasuna ere.

Bestalde, oro har prezioen berrikuspenik ez dagoenez gero, hainbat alditarako kontratazioak zaildu egiten du kontratazioa, balizko esleipendunek ez dutelako nahi izaten ziurtasunik gabeko inguruabarretan aurkeztea.

Bestalde, esan behar da sistema beraren bidez egin zela 2018. urterako kontratazioa, eta 2019. urterako, indarreko legeriaren arabera, prozedura irekia erabili da, eta Eusko Jaurlaritzaren plataforman egin da lizitazioa aipaturiko prozedurarako adierazitako epeekin. Hots, kontratazioak urtebeteko aldietan egitea ez da izan, inolaz ere, kontratua zatikatzea, prozedura irekia saihesteko zatikatzea.

- *Ez dira negoziatu ogasuneko eraikineko instalazio elektrikoa egokitzeko obren kontratuko baldintzak, prozedura negoziatuaren bidez 215.138 euroan esleitua. Atzerapenarekin egin dira zuinketaren egiaztapen-akta, segurtasun eta osasun planaren onespena, laneko programaren onespena eta obraren onarpena (ikus A.7, 4. espediente).*

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko kontratazio zerbitzuaren eta kontratuak sustatzen zituzten sailen artean izapidetzen ziren prozedura negoziatuak. Zehazki, sail sustatzaileak enpresei gonbitea luzatu, dokumentazioa jaso eta aztertu eta negoziatu egiten zuen esleipen proposamena Kontratazio Zerbitzuari igorri baino lehen, azken horrek kontratazioa egin zezan. Horretarako, prozesua espedientean agerrarazten zuen, ondoren aipaturiko zerbitzu horri igortzeko.

Horregatik, irregulartasuna gertatu da, baina ez du prozesua baliogabetzen Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluan ezarritako ondorioetarako. Hauxe dio hirugarren atalean: “Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri”.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ALEGAZIOA

“Hainbat hautagairekin ez da kontsultarik egin eta ez dira negoziatu ogasuneko eraikineko instalazio elektrikoa egokitzeko obren kontratuko baldintzak, prozedura negoziatuaren bidez 215.138 euroan esleitua” argudioari dagokionez, egin direla esan beharra dago. Gonbitea egin zaie 4 enpresari (pleguen karatulak dakar). Lau enpresari gonbitea egin eta hiruk aurkeztu dituzte eskaintzak:

- INSTALACIONES ELECTRICAS ESCORPIO S.A.
- EUSKOIME S.L.
- ELECTRIFICACIONES RADIMER S.L.
- TECNUCI: gonbitea egin zaio baina ez du eskaintzarik aurkeztu.

Zuinketaren egiaztapen-aktan, segurtasun eta osasun planaren onespenean eta lan programaren onespenean izandako atzerapena dela-eta, esan behar da atzerapena gertatu zela egin behar ziren datengatik, hots, udan: abuztuan onartu ziren. Horrek bi hilabeteko atzerapena ekarri zuen.

Obra onartzeari dagokionez, hauxe esan beharra dago:

2017ko amaieran eta 2018. urte osoan, hiru lagun igaro dira kontratuak izapidetzeko eskumena duen Baliabide Ekonomikoen eta Erosketen Ataleko Burutzatik, eta zenbait hilabetetan okupatzailerik ere ez da izan.

Gauzak horrela, obra onartzeko egintza formala ez zen egin, hura izapidetu behar zuen arloak horren berri ez zuelako. Izapidea falta zela ohartu ginenean, konpondu egin genuen. Izapide horrek, ondorio formalak izan ezik (garrantzizkoak dira), ez du garrantzi ekonomikorik, zeren eta obra burutu izanak ez baitu izan aldeko edo kontrako saldorik Aldundiarentzat (saldoa hutsean gelditzen da).

- *Azpiegiturak, S.A.U.k esleitutako 8,4 milioi euroko bi obra kontraturen eta Garbiker, S.A.U.k esleitutako 893.101 euroko lau hornidura-kontraturen prezio irizpidea baloratzeko AKBPn erabilitako formulak ez dio gehieneko puntuazio ematen, soilik, eskaintzarik merkeenari, edo eskaintzarik merkeena puntu guztiak eskuratzea galaraz lezake (ikus 10.2., 5, 6, 11, 13 eta 14. espedienteak).*

AZPIEGITURAK ERAKUNDEAREN ALEGAZIOA

Proposamen ekonomikoari dagozkion puntuak esleitzean erabilitako formularen arabera, eskaintzarik merkeenak beti lortzen du puntuaziorik handiena aurkezturiko proposamenen artean. Hala ere, lizitazio horietako batean gerta zitekeen % 5-%10ean gehituriko Baxu Ertaina zuten eskaintza guztiek izatea puntuazio bera.

Hain zuzen ere kontratu honetan 3 eskatzailek lortu dute gehieneko puntuazioa fase honetan. Aukerako beste formula bat erabili izan balitz gehieneko puntuazioa soilik eskaintzarik merkeenari ematea bermatzeko, Azpiegiturak, SAMPeK egindako beste lizitazio



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

batzuetan egin izan den bezala, ez zen aldatuko lehiaketaren azken emaitza, eta eskaintza irabazlea azkenean esleipendun gertatu zen berbera izango zen.

6.337 mila euroan esleituriko 2. obra kontratuan (Gernikan Elkartegia egitea), eskaintzarik merkeena lortzen duenak enpresa lizitatuzaileen artean gehieneko puntuazioa izatea errespetatzen da. Izan ere, prezioa oinarri hartuta esleituriko kalifikazioek hala ezarri dute, eskaintzen arteko proportzionaltasuna errespetatuz.

Kasu honetan, pleguetan argitaraturiko formulari ezarri zenez, fase honetan esleituriko puntu guztiak (55 puntu) %10ean gehituriko Baxua Ertaina zuen eskaintzari eman zitzaizkion. Jasotako ezein eskaintzak ez zuen baldintza hori betetzen eta, horregatik, ezein eskaintzak ez zuen jaso puntuaziorik altuena, baina eskaintzarik merkeenari 52,12 puntu eman zitzaizkion, 51,71 puntu 2.ari eta horrela elkarren segidan gainerako proposizioei.

GARBIKERREN ALEGAZIOA

Kasuren batean baliteke eskaintzarik merkeenak ez lortzea atal ekonomikoko puntu guztiak eramatea (aurkezturiko eskaintza ekonomikoen multzoak berak baldintzatuko luke hori), baina, hala ere, eskaintza ekonomikorik baxuenak kasu guztietan puntuaziorik altuena eskuratzea bermatzen da eta, gainera, proportzionaltasuna ziurtatzen da puntuak esleitzean.

- *Azpiegiturak, S.A.U.k 8,4 milioi euroan esleituriko bi obra kontraturen AKBPre barruan, esleipen-irizpide gisa, makinari, ekipamenduen eta instalazioen gaineko balorazioa sartzen da, baina ez dakarte kontratuaren xedearen gaineko plusik (ikus A.10.2, 5 eta 6 espedienteak).*

AZPIEGITURAK ERAKUNDEAREN ALEGAZIOA

Bi obra kontratu horien pleguek hainbat esleipen-irizpen ezarri dituzte, onartzeko irizpideez gain.

Lizitatuzaileek aurkezturiko eskaintzak behar bezala balioesteko, aurreikusitako makineriaren eta ekipamenduen zehaztasuna eskatzen da balorazio teknikoari buruzko atalean, haien balioak eta jabetza edo mendekotasuna zehaztuta.

Makineriaren balioak zehaztu beharra dagoela adierazten denean, horren ezaugarri teknikoak aipatzen ari dira, aldeztu aurretik egin beharreko obraren inguruabarretara egokitzen den zehazteko. Hartara, lanak behar bezala burutzeko eskuragarri jarritako bitartekoak beharrezkoak, proportzionalak eta egokiak diren aztertzen da eta, era berean, bitarteko horiek obran eta ingurunean izan dezaketen eragina baloratzen da hala nola alboko eraikinek, bideek, urbanizazioak, etab.

Makineria enpresa eskatzailearen jabetzakoa den ala ez jakitea lagungarria da makina horrek duen ahalmena zehatzago ezartzeko, hain zuzen obraren eskura jartzeko beratu behar bezala burutzeko beharrezko bitarteko guztiak.



- BFAk guztira 11,2 eta 47,3 milioi euroan esleituriko zazpi zerbitzu kontraturen eta lau esparru-akordioaren AKBPeK ez ditu parametro objektiboak adierazten, honako hau jakin ahal izateko: roposizioa ezin bete daitekeela balio anormalak edo neurritz kanpokoak sartu izanaren ondorioz (ikus A.7, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 16, 17, 18 eta 19. espedienteak).

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

Gabezia horri erantzunez, kontuan hartu behar da aipaturiko zerbitzu kontratuei nahiz azterturiko esparru-akordioei aplikatu beharreko araudia azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua dela, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onetsi duena, kontratuen deialdia argitaratzean indarrean zegoena.

Aipaturiko lege testu horren 152. artikuluan, balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituzten eskaintzak arautzen dira, eta horretarako, hauxe ezarri da balorazio-irizpide bat baino gehiago aintzat hartu beharreko esleipenen kontratuetan, aztergai dugun kasuan bezala:

“2. Kontratua esleitzeko balorazio-irizpide bat baino gehiago hartu behar bada kontuan, pleguetan adierazi ahal izango da zein parametro objektiboren arabera joko den, hala dagokionean, proposamenak ezin direla bete balio neurrigabeak edo anormalak izateagatik.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabiliko den irizpide objektiboetako bat eskaintako prezioa bada, administrazio-klausula zehatzen agirian zehaztu ahal izango da zein kopururen arabera joko den, hala dagokionean, proposamena ezin izango dela bete eskaintzak neurrigabeak edo anormalak izateagatik.”

Hori oinarri hartuta, kontratazio organoaren eskumena eta erabakimena da pleguetan sartzea eskaintza batek ustez ezaugarri anormalen bat duela zehaztu ahala izatea eta, beraz, ez da nahitaezkoa pleguetan ezartzea, aipaturiko manua aplikatuz.

- Azpiegiturak, S.A.U.k 8,4 milioi euroan esleituriko bi obra kontraturen AKBPeK ezarritako esleipen-irizpideen artean, hobekuntzen atala dago sartuta, baina ez da zehazten zein osagaitan eta zein baldintzatan aurkeztu daitezkeen (ikus A.10.2. 5 eta 6 espedienteak).

AZPIEGITURAK ERAKUNDEAREN ALEGAZIOA

Bi kontratuen AKBPeK horiek hobekuntza gisa balioetsitako alderdiak ezartzen dituzte. Horien artean, kalitateei, erabili beharreko materialei, bermeei edo beste batzuei buruzkoak daude. Aipatzen denez, hobekuntza gitsa balioetsi da berme-aldia luzatzea, baita eraikinak zerbitzuan jarri ondoren bereganatutako mantentzeak ere.

Azterturiko obretako batean aurkezturiko eskaintzak baloratzeko eginiko txosten teknikoan, hobekuntza horiek banakatuta ageri dira, eta ekonomiaren aldetik zenbatu eta balorazio ekonomiko horren araberrako puntuazioak esleitu dira.



Bigarren obran, eraikin berriaren eraikuntza ez denez gero -fatxada osorik konpontzea baino-, zailagoa da puntuazioa ematea proposaturiko hobekuntzen balorazio ekonomikoan oinarrituta. Alabaina, ekonomiaren aldetik zenbatu ahal izan diren hobekuntzak irizpide horren arabera baloratu dira. Beste alderdi batzuei, ostera, aipaturiko espedientean azaldutako irizpideen araberrako puntuazioa ezarri zaie besteak beste aipaturiko obra esleitzeko txosten teknikoan batera islaturikoak eta zehazturikoak.

- *BFAk gainditu egin du 3,7 milioi euroan esleituriko bi obra kontratu eta zerbitzu kontratu bat esleitzeko ezarritako gehieneko epea (ikus A.7, 1, 3 eta 13 espedienteak)*

EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA

1. 81-631 adarrak birsortzea eta egokitzea. Gasolindegia. Azken Egiaztagiria-Atzerapena-onarpena

SPKLTBren epea (161. art.): 2 hilabete edo AKBPeK ezarritakoa

Eraikuntza Zerbitzuan espedienteko datuak berrikusita egiaztatu denez, 4 hilabete igaro ziren eskaintzak irekitzeko egintzatik (16-12-28) foru aginduaren bidez esleitu arte (17-4-27).

Hainbat zerbitzuek hartu dute parte prozeduran. Eraikuntza Zerbitzuak esku hartu dueneko izapideen daten erregistro data oinarri hartuta, iraupenaren epe partzialen batura 35 egutegiko egun da.

Askotariko izapideak eta zerbitzu esku-hartzaileak izan direla ikusita, Zerbitzu honek ezin eman dezake auditoria horretan aipaturiko berandutzea justifikatzeko kausa zehatzik.

HERRI ADMINISTRAZIOERAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

Espediente horietan, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onetsi duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 161. artikuluan esleipena egiteko ezarritako gehieneko epea gainditu da, kontratuen deialdia argitaratzean indarrean zegoena. Hala ere, soilik prozedurako irregulartasuntzat hartzen da, azken egintzaren deuseztagarritasuna ez dakarrena, hots, ez du ukitzen egintzaren baliozkotasuna.

Halaxe dago xedaturik Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 48. artikuluko hirugarren atalean: "Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri". Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dute egintzaren deuseztasuna edo deuseztagarritasuna sortzen.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- *2017ko urtarrilaren 2an formalizatutako Bizkaiko Tutoretza Erakundearen kanpoko aholkularitza juridikoaren kontratuaren behin betiko bermea, 204.490 eurokoa (BEZ barne), 2017ko apirilaren 25ean jarri zen (ikus A.10.2, 1. espedientea).*

TUORETZA ERAKUNDEAREN ALEGAZIOA

Esan behar da ezen, kontratu batetik bestera igarotzeko tartea, baten indarraldia bukatzen denetik bestea hasten denera arte, 24 ordu eskasekoa dela, eta tutoretzapekoei halabeharrezko eta ezin hautsizko laguntza juridikoa emateko zerbitzua hutsik ez uzteko eta agindutako gaien larritasuna eta garrantzia ikusita, epea bukatzen den urteko azken hileetan edo asteetan bukatu ohi da esleipen prozesua. Hori dela-eta, kontratazio prozesuak nolabait jarraitu egiten du urtarrilean behin betiko sinatu arte, betiere horren gaineko errekurtsorik edo erreklamaziorik ez badago.

Bermea urtarrila igaro eta zenbait egunetara edo astetara ematen da aipaturiko inguruabar horrengatik, baina esan beharra dago berme gisa jarritako diru-kopuruek urtarrilaren 1etik dutela estaldura, ondoren eman badira ere, eta ez kontratua sinatzen denetik edo bermea aurkezten denetik.

Nolanahi ere, hutsune hori dagoeneko konpondu egin da ondorengo kontratazioetarako.-

- *BFAk 5,6 milioi euroan esleituriko obra kontratu bat aldatu du kosturik gabe, prestazioa kontratuaren esleipenaren ondoren onetsitako zehaztapen teknikoetara eta ingurumen, hirigintza, segurtasun edo irisgarritasunaren inguruko zehaztapenetara egokitzeko (ikus A.7., 30 espedientea).*

HERRI ADMINISTRAZIOARAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

Sektore publikoko kontratuen legearen testu bateginaren 107.1. artikulua dakarrenez, pleguetan edo lizitazioaren iragarkian aurreikusi gabeko aldaketak soilik egin ahal izango dira zehazturiko inguruabarretako bat gertatzen dela nahikoa egiaztatzen bada. Hauxe ezarri da e) atalean: “aldaketa onesteko posibilitatea, prestazioa kontratua esleitu ondoren onetsitako zehaztapen teknikoetara eta ingurumen, hirigintza, segurtasun edo irisgarritasunaren inguruko zehaztapenetara egokitzeko”.

Inguruabar hori gertatu zen, aldaketa justifikatzeko txostenean eta proiektua onesteko ebazpenean bilduta dagoen moduan, aztergai dugun espedientean. Batzordearen 2016ko azaroaren 30eko 2016/2281 Erregelamenduak Europako eta Kontseiluaren 2009/125/EE Zuzentaraua aplikatzen du, zeinaren bidez energiarekin lotutako produktuei aplikatu beharreko diseinu ekologikoaren gaineko eskakizunak ezartzen baitira airea berotzeko produktuei, hozteko produktuei, tenperatura altuko prozesuetako hozkailuei eta aire-konektoreei dagokienez. Zuzentarau hori 2017ko urtarrilaren 9an sartu zen indarrean.



Proiektuko klimatizagailuek ez zuten betetzen ekodiseinuari buruzko ERP 2016 araudia, eta horrek eragina zuen, besteak beste, beroa berreskuratzeko gailuaren eraginkortasunean eta haizagailuen potentzia espezifikoan (SPF). Hortaz, proiektua aldatu beharra zegoen, instalazioari irtenbide teknikoa emateko eta ERP 2016 araudian ezarritako arauko eskakizunak betetzeko. Izan ere, erregelamendu hori proiektua onetsi ondoren sartu zen indarrean eta, beraz, kontratua esleitu ondoren.

Horregatik, aurreikusi gabeko aldaketa onesteko, aipaturiko artikuluan ezarritako eskakizunak bete ziren.

OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ALEGAZIOA

Gaia dela-eta, gobernu kontseiluak, 2017ko martxoaren 7an, aldaketa onetsi zuen, guztira -16,70 euro, 2017ko otsailaren 2an emandako txostena oinarri hartuta.

Ildo horretan, hauxe dio txostenak:

“Proiektua aldatzeko arrazoia lizitazioa eraentzen duen dokumentazioko 107. artikulua da (ezarrita ez dauden aldaketei buruzkoa), 1. puntua hain zuzen (“Pleguan edo lizitazio iragarkian aurreikusita ez dauden aldaketak soilik egin ahal izango dira hurrengo inguruabarretako bat betetzen dela nahikoa egiaztatzen bada”, e) atalean (“Prestazioa kontratua esleitu ondoren onetsitako zehaztapen teknikoetara eta ingurumen, hirigintza, segurtasun edo irisgarritasunaren arloko zehaztapenetara egokitzea”.

Klimatizagailuetan ekodiseinuaren araudia (Erp 2016) betetzea da proposauriko proiektuaren aldaketaren xedea, eta hori betetzeak berekin dakar honako jarduketak hauek egitea: •

- Klimatizagailuak taldekatzea.
- Humektazioa taldekaturiko klimatizagailura egokitzea.
- CLIMAVER METAL hodian sistemaren ordez CLIMAVER NETO jartzea.
- 0-10 V motordun konporten instalazioa solairu bakoitzeko oinarrizko aire estrakzio eta inpulsio hodian, CO2 eta HR zunden instalazioa solairu bakoitzean inpulstaturiko oinarrizko airearen emaria kontrolatzeko hodian eta motordun konporten instalazioa okupazio ez iraunkorra duten lokalak ixteko: batzar gela, prestakuntza gelak, ekintza aretoa...
- Banaketa-ponpak.
- 1x1 ekipalmenduak jartzea eta gela teknikoak egokitzea.

Berrikuntza proiektuaren aldaketa onesteko, BOST MILIOI SEIEHUN ETA HAMALAU MILA HIRUREHUN ETA HOGEITA BI EURO ETA HAMABI ZENTIMO (5.614.322,12 euro) behar dira, hots, %0,0003ko jaitiera esleipenaren prezioarekiko (5.614.338,82 euro), eta kopuru absolutuetan 16,70 euro gutxiago.”



- BFAk administrazioari egotz dakizkiokeen etenaldiak eta luzapenak onetsi zituen, 2011n eta 2013an 2,3 milioi euroan esleituriko bi zerbitzu kontratutan. Horren ondorioz, % 138 eta % 63ko gehikuntzak izan dira hasieran ezarritako esleipen epean, hurrenez hurren. Kontrataziorako funts publikoen erabilera eraginkorra bermatzeko, aldez aurretik egoki definitu behar dira betebeharrak, aurreikusitako epeak gehiegi luza ez daitezzen (ikus A.7, 20 eta 21. espedienteak).

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

- LAGUNTZA TEKNIKO AVANZADAKO TUNELA ERAIKI, HANDITU ETA EGOKITZEKO ETA BI-637 ERREPIDEAREN AHALMENA GETXO-URIBEKOSTAKO NORANTZAN HANDITZEKO PROIEKTUA. TARTEA: LANDABARRI-ARTAZA-BOLUE. (ESP.: 2010/016/061/06)

Horri buruzko txostena Kontratuaren Zuzendaritzari eskatuta, hauxe adierazi du Plangintza eta Proiektu Zerbitzuko Burutzak:

“Kontratu honen xedea da Avanzadako tuneletako ingurumena (zarata gutxitzea, iragazkortasuna, 2007ko indarreko araudira egokitzea, etab.) egunean 100.000 ibilgailuko trafikoarekin uztartzea, soilik bi errei zirkulazioko noranzko bakarretik. Euskal Autonomia Erkidegoan antzeko trafiko duen tunel bakarra San Mameseko sarrerak dira (2013an inauguratuak), non trafiko astuna debekatuta dagoen eta hiru errei dauden noranzko bakoitzean). EAeko gainerako tunelek nahikoa trafiko txikiagoa dute. Avanzadako errepidean egun dauden zuloak bete eta tunelak banandutako hiriguneko bi bazterrak iragazgaiztea da kontua.

Kontratuak lehen luzapena izan zuen 2013ko urrian, bi arrazoiengatik:

- Zenbait hilabete lehenago, 2012ko abenduan, Bizkaiko Errepideen Arloko Lurralde Plana idazten hasita zegoen, eta bertan ezarritakoak oso baliagarriak izan zitezkeen. Tuneletako trafiko pilaketak ziren antzemandako arazoak, gero eta trafiko maila handiagoaren ondorioz (2012an indarrean sartu ziren tunelen segurtasunari buruzko jarraibide tekniko berriak), eta tunela ixteko beharra gerta zitezkeen pilaketak zeudenean estaldura jarritakoan, zeren eta kasu honetan 800 metroko tunela izan bailitzateke egungo 310 metrokoa izan barik. Euskal Autonomia Erkidegoan trafikorik handiena duten tunelak dira (egunean 90.000 ibilgailu baino gehiago) eta, beraz, errepideen plangintza zein zen jakin beharra zegoen (2016-2034) itsasadarreko bidegurutzeko azpiegitura berriren bat sar zitezkeen haren jarduketan artean, Arrontegiren ordezkia izateko eta Avanzadako tuneletako trafiko deskargatzeko. Beraz, zentzuzkoa zela ematen zuen Lurralde Plangintza berriaren lanen berri izateak. Ez genekin noiz egin zen proiektuaren lizitazioa, ezta ALP noiz abiarazi zen eta tunelen segurtasunaren araudiaren aldaketa noiz gertatu zen ere.
- Avanzadako ingurumen-integratziorako irtenbidea, kutsadura akustikoa gutxituta eta iragazkortasuna handituta (osorik edo zati batez estaltzea), hiri-izaera handiko tartean egiten da. Leioako udal teknikariek izan behar zuten une horretan lantzen ari ziren



hasierako proposamenen berri (zati batez estaltzeko irtenbideak), honako hauei buruzko haien iruzkinak jasotzeko: hiriko akaberak, iragazkortasuna pasaguneen bidez handitzea, trafiko murrizketak obrek iraun bitartean, etab. Hori dela-eta, haiekin harremanetan jarri ginen kalkulu estrukturalekin jarraitu baino lehen. Eta harreman, bilera eta erantzuna emateko txosten horiek hasieran uste zena baino denbora luzeagoa behar izan zuten.

Ondoren, bigarren luzapena eskatu behar izan zen 2014. urteko irailean.

Hona hemen horretarako arrazoiak:

- Itsasadarreko bidegurutze berrien Arloko Lurralde Planean proposaturiko irtenbideek Avanzadako proiektuan izan lezaketen gero eta eragin nabarmenagoa, eta berariaz tuneleko trafikoak deskargatzea puntako orduetan (adibidez: itsasadarreko bidegurutzea Lamiakon). Avanzadako tuneletako trafikoari buruzko datu berriak zehatz aztertuta ikusten denez, zenbait egoeratan itxi beharko litzateke 800 metroko estaldura jartzen bada egun dituen 300 metroak izan barik, eta ez zegoen tuneleko trafikoa gutxitzeko modurik. Tunelaren luzera hiru aldiz handiagoa izanik, trafiko esperei buruzko datuek erakusten zuten beharbada tuneleko ahalmena handitu behar zela, edo bidegurutzeko azpiegitura berria, Avanzadako tunelak deskargatzeko, edo Kukularrako lotunearen hobekuntza martxan jarri (gaur egun eraikitzen ari dena) edo kostu txikiko neurriak hala nola alboko bideen berrantolaketa. Arloko Lurralde Plan berriak planteatzen zituen aukerak aztertu behar ziren.
- Gainera, 2012an indarrean sartu ziren tunelen segurtasunari buruzko jarraibide berriak (Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 24ko 91/2012 FORU DEKRETUA, Errepideetako Tunelen Segurtasunari eta Ustiapenari buruzko Jarraibide Teknikoak onetsi dituen), indarrean zeudenen zenbait alderdi aldatu zituztenak. Horregatik, egokitzapenak egin eta azterlanak Bizkaiko Tunelak Ikuskatzeko Organoari igorri behar izan zitzaizkion ondorioak jasotzeko, zeren eta haren txostena loteslea eta aginduzkoa baita eraikuntza proiektua onesteko.

Orain artean azaldutakoak kontuan izanik, aldakuntza egin behar izan zen 2015eko ekainean. Aldakuntzaren xedea ahalmenaren ingurukoak aztertu eta tuneletako trafiko pilaketak gutxitzen saiatzea zen, betiere sareko beste botila-lepo batzuk tunelerako kaltegarriak direla ulertuta (besteak beste Kukularra, egun burutzen ari dena eta Avanzadako tunelak hobetuko dituen). Kostu txikiko jarduketak ere proposa zitezkeen sarrerak eta irteerak gutxituta alboko bideetan, baita Avanzadako ahalmena handitzeari buruzko azterlana ere. Horrez gain, kontratua idatzi bitartean indarrean sartu zen araudi berriari erantzuna eman behar zitzaion, hots, tuneletako eta bide-segurtasunari buruzko araudi berria. Hona hemen aldakuntzaren xedea:

- Trafiko pilaketak gutxitzea tunelean kostu txikiko neurrien bidez: Kukularrako lotunerainoko trafikoari buruzko azterlan xehatua osatzea, fasekako jarduketak planteatu ahal izateko, azken irtenbidea zein den jakin ondoren. Besteak beste, Kukularrak zekarren eragina jakitean oinarritzen zen (INTERBIAK idazten ari zen irtenbidea), baita Avanzadako alboko bideen berrantolaketa proposatzean ere. Alboko bideak berrantolatuta (kostu txikia), alboko bideetara ekartzen zen trafiko eta tunelak deskargatu, helmuga



Leioa baitzen eta ez baitzuten tunela erabili behar (helmuga: Getxo eta Uribe Kosta). Tunelaren segurtasuna hobetzea lortuko zen hala.

- Alboko bideen gaineko azterketa. Erabiltzaileek auto-ilara gainditzeko alboko bideak erabiltzea galaraztea, baita tunelaren sarreran botila-lepoa sortzea galaraztea; halaxe gertatzen da egun.
- Zarata eta iragazkortasun arazoak gutxituko lituzkeen gainaldea diseinatzea egungo diseinua errepikatu behar izan gabe; izan ere, iraunkorragoa da ekonomiaren aldetik, ez du egun dagoen arriskua handitzen eta nabarmen hobetzen du etxebizitzetako eragin akustikoa. Hala, indarreko araudian galdaturiko mugen barruan geldituko litzateke.
- Tunelean eta igarobide osoan ahalmena handitzeko epe luzerako irtenbidea uztartzea eta baloratzea, itsasadarreko bidegurutzearen irtenbide berriarekin erka litekeena. Trafiko pilaketak gutxitzeko balio izango luke, baina ez arriskua, eta ez luke sare malla lortuko.

Hirugarren luzapena behar izan zen azkenean 2015ean, arrazoi hauengatik:

- “Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide sareko bide-azpiegituren segurtasunaren kudeaketari buruzko 80/2014 Dekretua” indarrean sartzea. Dekretua dela-eta, Bide-segurtasunari buruzko azterketa egin beharra dago, “Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideen foru sare osoko bide-segurtasuneko prozedurei buruzko gidaliburu teknikoak (2015)” direlakoekin bat etorri eta, beraz, bide-segurtasunaren gaineko auditoria egin beharra zegoen gidaliburu horien arabera. Hortaz, denbora gehiago eman behar zitzaion kontratuari.

Hasieran kontratua aztertu zenean, ez genekien benetan zelako arazoa zegoen segurtasunaren aldetik tunelean 300 metrotik 800 metrora igarotzean, gehikuntzak zaitzeuden trafikoan, sareko gainerako errepideetan krisiaren ondorioz beherakada gertatu bazen ere. Ez genekien tunelei buruzko araudi berria indarrean sartu izana (2012), ez Arloko Lurralde Plan berria idatzi izana, ez INTERBIAK-en Kukularrako proiektuaren emaitzak, ez Avanzadako tunletako egoeraren balizko hobekuntza. Horren guztiaren ondorioz, trafikoari buruzko azterlan osoa egin behar izan zen nahitaez, epe laburrerako kostu txikiko irtenbideak planteatu eta epe ertainerako kostu handiagoko irtenbideak bilatu. Horrez gain, martxan jarri ziren horiek Arloko Lurralde Plana idazteko kontratua abiarazi ondoren, eta Avanzadako tuneletan eragin esanguratsua duen araudi berria sartu zen indarrean.

- 91/2012 Foru Dekretua, apirilaren 24koa, Errepideetako Tuneletako Segurtasun eta Ustiapen Jarraibide Teknikoak onartzen dituena.
- 80/2014 Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko errepide sareko hainbat bide-azpiegituratako segurtasunaren kudeaketari buruzkoa.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideen foru sareko bide-segurtasuneko prozedurari buruzko eskuliburu teknikoak (“B.A.O.”, martxoaren 17koa).



- LAGUNTZA TEKNIKOA, BALLONTIKO SISTEMAKO IGAROBIDEEN ETA AVANZADAREN (BI-637) LOTURAREN GAINEKO AUKEREN AZTERLANA IDAZTEKO (ESP.: 2012/028/061/06)

Horri buruzko txostena Kontratuaren Zuzendaritzari eskatuta, hauxe adierazi du Plangintza eta Proiektu Zerbitzuko Burutzak:

“Metropoliko sarean eta Avanzandan ere dauden zailtasunak ezagututa, kontratu honen xedea da metropoliko sareko mallaren irtenbideak bilatzea, Arrontegiren ordezkio bideak aurkitu eta xehetasunez zehaztu ahal izateko egun trafikiko handiko ardatzetan izaten diren ondorioak. Kontratu horri esker, Avanzadan dituen ondorioak hobeto ezagutu ahal izan dira, baina helburu zabalagoa lortu nahi zen eremuan Avanzadako proiektuarekin baino, aztertu beharreko sarearen luzeraren aldetik. Zenbait irtenbide hartuko lituzketen trafikikoak zein diren jakin nahi zen, esaterako, Erandioko Axpeko zubiak, Barakaldoko Lutxanako zubiak eta Lamiakoko bazterren arteko konexioak. Hala, egun auto-ilara handiak izan ohi dituzten ardatzetan izango liriatekeen deskargak zein diren jakin liteke; Arrontegiko zubia, Max Center eta Unibertsitate eta Avanzadako tunelen arteko lotunea.

Irtenbide horietan, goizeko puntako orduko eta arratsaldeko puntako orduko trafikoko balioak ezarri ziren, lotunen gaineko analisiak, etab. Eraginpeko zenbait kale nagusitan eta hiriko kaleetan ere jardun nahi zen, bidegurutzeko puntuak elikatzekeo itsasadarrean eta, beraz, hiri lurzoruetako ukipenak izan zitezkeen, bai dagoeneko izapidetzen ari diren arauetan, bai plangintza faseetan daudenetan (behin betiko arauetan sartu gabekoak, baina izapidetzeko fasean daudenak). Are gehiago: enpresei desjabetzeak egitea edo inguru horietako hiri garapenak hartu ziren aintzat.

Oso hiri-izaerako jarduketak zekartzan lanak, eta udalerrri asko ukitzen zituen: Leioa, Erandio, Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Getxo, besteak beste.

Lanek iraun bitartean, luzapena eskatu behar izan zen 2016. urtean, arrazoi hauengatik:

- Udalerrietan burutzen ari diren hiri plangintzako jarduketan eta planifikaturiko irtenbideek dakartzaten ukipenen berri izan behar zen. Hala, adibidez, Axpeko Zubian tunela egin behar zen eta, horretarako, onetsita baina betearazi gabe zegoen etxebizitza garapenari zegozkion lurak behar ziren. Beste irtenbide batzuetan, itsasadarreko bazterretan kokaturiko enpresak desjabetu beharra izan zitekeen. Batzarrak egin behar ziren eraginpeko udalerriekin, ukipen graduak azaltzeko, eta haien erantzunen edo ondorioen zain egon, jarduketan kostuak balioetsi ahal izateko, ez bakarrik obrei zegozkienak, baizik eta benetako balioa zuten desjabeturiko lurrenak ere bai (desberdina da onetsitako garapenak dituen hiri lurreko ukipenean edo sistema orokorretan, edo enpresak desjabetzean, horrelakoak gutxitu egin behar baitira enpresen deslokalizazioa galarazteko, besteak beste). Horregatik, eraginpeko udalerrien baldintzen zain egon beharra zegoen. Horretan prozesu guztian, tartean horrenbeste udalerrri izanik, hasieran aurreikusitakoa baino askoz denbora gehiago behar izan zen.

Kontratuaren plegua idatzi zenean, ez zen antzeman horrenbeste udalerrri hartzen zituzten kudeaketek hainbeste batzar egin beharra ekarriko zutenik, eta ez zen zenbatetsi tartean ziren udalerriek erantzuna emateko denbora. Horrez gain, atzerapenak izan ziren



errepideetako trafiko espiretako datuak hartzean, zeren eta zenbait espira ez baitzegoen zerbitzuan obra aldietan eta goizeko eta arratsaldeko puntako orduetako datuak eskuratu behar baitziren.”

- *Gainditu egin da 3 hilabeteko epea azken egiaztapenaren onarpena jaso zenetik esleituriko hiru obra kontratutan; guztira 5,9 milioi euroan esleitu ziren kontratuok (ikusit A.7, 1, 28 eta 31. espedienteak).*

EKONOMI ETA LURRALDE GARAPENA SUSTATZEKO SAILAREN ALEGAZIOA

1. 81-631 adarrak lehengoratzea eta egokitzea. Gasonlindegiak. Azken egiaztagiria-Onarpenaren atzerapena

2017ko abenduaren 30ean, lanak onartzeko akta egin zen. Egintza horretan, 2018ko urtarrilaren 10a ezarri zen egiaz buruturiko obren neurketa orokorra egiteko data.

Datu topografikoetan eta zuinketan eta obrek iraun bitartean bildutako dokumentazio osagarrian oinarrituta egin ziren lanak. Kontratuak iraun bitartean sortutako datuak biltzeko, antolatzeko eta erkatzeko, hasieran espero zena baino denbora tarte luzeagoa behar izan zen. Neurketen emaitzak eta konpondu eta argitu beharrekoak komunean jarri zirenez gero, luzatu egin ziren espedienteak izapidetzeko eta emateko data.

28. A-8 autobideko La Arena zubia konpontzeko obren proiektua idaztea eta obrak burutzea.

Espediente hau dela-eta, ez da alegaziorik egingo, zeren eta obraren sustatzaileari baino zerbitzu gehiagori egotz baitakioke atzerapena. Hortaz, zerbitzu sustatzaileak ez du HKEAren txostenaren inguruko alegaziorik egingo.

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

Hiru espedienteetan, azken ziurtagiria onartzea atzeratzeari dagokionez, nabarmendu behar da urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 48. artikulua (kontratu honetan aplikagarria), hirugarren atalean, honako hau dioela: “Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, epearen izaerak hala eskatzen duenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri”.

Hortaz, administrazio-egintzaren akats guztiek ez dakarte horien deusezatasuna edo deuseztagarritasuna. Amaierako egintzaren deuseztagarritasuna ez dakarren prozedurako irregulartasuna da.

- *Honako gastu hauek homogeneous, aurreikusgarriak eta bakoitza hornitzaile batekin kontrataturikoak dira; honenbestez, lehia bideratu behar zatekeen horiek kontratatzean:*

		<i>Euroak milakotan (BEZa barne)</i>
ENTITATEA	XEDEA	ZENBATEKOA
BFA	Hainbat sailtako itzulpenak, Euskara zerbitzukoak salbu.....	135
	<i>Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren laguntzak izapidetzeko laguntza teknikoa.....</i>	<i>50</i>
<i>Biscaytik Fundazioa</i>	<i>Telefono-zerbitzua.....</i>	<i>53</i>

HERRI ADMINISTRAZIORAKO ETA ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILAREN ALEGAZIOA

ERAKUNDEA	XEDEA	ZENBAT. (milaka euro)
BFA	Hainbat sailtako itzulpenak, Euskara zerbitzukoak izan ezik	135

Arloa dela-eta eskumena duen unitateari horri buruzko txostena eskatuta, hauxe adierazi du Euskara eta Kultura Saileko Zerbitzu Orokorretako Zerbitzuko Burutzak:

“Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 17ko 2/2009 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera-esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena. («Bizkaiko Aldizkari Ofiziala», 38. zenbakia, 2009ko otsailaren 25ekoa).

2. Kapituluako 5. artikuluan, itzulpenak egiteko irizpideak arautu dira. Ohiko itzulpenak eta itzulpen bereziak bereizten dira, eta bertan ezarritakoaren arabera, foru sailak Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologia Atalarekin jarri ahal izango dira harremanetan testu berezien itzulpena antolatzeko; sail bakoitzak hartuko ditu bere gain itzulpenen kostuak.

Hortaz, testu berezien itzulpenak, 2017an, 22/200 Foru Dekretuan ezarritako protokoloa jarraituz burutu dira.

2018. urtean, eta Kontratuen Lege berria betetze aldera, Euskara eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzuak kudeatzen duen testu itzulpenen kontratu orokorra aldatu da, sailtako testu berezien itzulpenak izapidetu ahal izateko eta, horrela, kontratu txikiak ekiditeko.

ERAKUNDEA	XEDEA	ZENBATEKOA (mila euro)
BFA	Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren laguntzak izapidetzeko laguntza teknikoa	50

Arloa dela-eta unitate eskudunari txostena eskatuta, hauxe adierazi du Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Saileko Landa Garapeneko Zerbitzuko Burutzak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Kudeaketa eta Kontrol Sistema Integratuaren barruko azalera neurriak tokian bertan egiteko kontrolei buruzko EBko araudia dela-eta, nahitaezkoa da kontrol gurutzatuak egitea aipaturiko kontrolen emaitzak egiaztatzeko.

Hori dela-eta, Erregelamenduak hala aginduta, talde tekniko batek eginiko kontrolak beste talde tekniko batek berrikusi behar ditu eta, hala, kontrolak plantel tekniko desberdinekin gurutzatuko dira.

Horrexegatik formalizatu dira 2017an aipaturiko kontratu txikiak.”

III.4 DIRU-LAGUNTZAK

... Bost diru-laguntza izendunen eta diru-laguntza zuzen baten kontu justifikagarrietan, 5,8 milioi eurotan emandakoa, ez da jaso onuradunaren eskaerari euskarria ematen dion dokumentazioa, hiru eskaintzena edo gastuen ezaugarri bereziei buruzkoak, eskatzea eragotzi dutenak.

GIZARTE EKINTZA SAILAREN ALEGAZIOA

Eskaturiko diru-laguntzaren justifikazio modalitateak (Justifikazio-kontua, auditorearen txostena barne -DFaren 59. art.) ez du behartzen onuraduna beren beregi hiru gastu aurrekontu aurkeztera, edo horiek eskatzeko modurik ez izateako gastuaren berezitasunak. Hala ere, auditoreak nahitaez egiaztatu behar du bete egiten direla.

Ildo horretan, auditoreak emandako txostenean agerrarazi denez, muga bat dago aurreko puntuan azaldutako egiaztapena burutu ahal izateko beharrezkoak diren auditoria-prozedurak aplikatzean. Besteak beste, honako argudio hauek eman ziren: erakundeak garaturiko proiektu kopuru handia eta faktura berean ordainarazitako gastu txikiak etengabe nahitaez jasanarazi beharra, zeinen gastuak beste proiektu batzuei ere ezar dakizkiekeen; ezarpenerako irizpideak balioztatzeko zailtasuna, etab.

Auditoreak emandako txostenean bildu den muga izanik, Sailak uste du ez duela argudio juridikorik/ekonomikorik? diru-laguntza itzultzeko espedienteak hasteko, besteak beste zenbateko bat jartzerik ez dagoelako. Horren ondorioz, diru-laguntzaren onarpen-akta egitea aukeratu da, FDAko 69. artikuluaekin bat etorritik. HKEAren eskuetan jarritako akta horretan, bestak beste, egokia dela iritzi zaio zuzeneko diru-laguntza izendun hori etorkizunean arautuko dute oinarrietan hauxe galdatzeari edo exijitzea: hiru eskaintza nahitaez aurkeztu beharra ezartzea gastuen/zerbitzuen hornitzaileei baldin eta, proiektuari dagokion zenbatekoa edozein delarik ere, kontratu txikien mugako kopurua gainditzen badute (FDAren 29.3. art.).

III.5 BESTE BATZUK

- *Bizkaiko Tutoretza Erakundea eta BizkaiKOAREN izaera juridikoa enpresa-erakunde publikoari dagokio. Egiten duten jarduerak kontuan izanik eta bi erakundeetako batek ere ez diharduenek merkaturako baldintzetan, gomendagarria izango litzateke diharduten egiazko baldintzetara egokitzea izaera juridikoa.*



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BIZKAIKO TUTORETZA ERAKUNDEAREN ALEGAZIOA

Esan beharra dago egokitzat jotzen dela Bizkaiko Tutoretza Erakundearen Eraketaren izaera juridikoa, Estatuko hainbat autonomia erkidegotan dauden antzeko izaerako beste batzuen antza duena.

Erakundea eratzeari buruzko Foru Aginduan ere azaltzen denez, erakunde publikoa da, baina eman beharreko jardueren xedeagatik beragatik, funtsean, adingabeen tutoretzak, zaintzak eta ondasunen administrazioak, Zuzenbide Pribatuaren menpe jartzen da bere eginkizuna eta jarduera betetzeko araubide juridikoa. Izan ere, funtsean aipaturiko xedeei dagokien arlo zibila biltzen du, eta beste edozein enpresa-jarduera Zuzenbide Pribatuaren eremu beraren menpe eta horren barruan gelditzen da, modu objektiboan halaxe beharrezkoa balitz. Horregatik, hasiera batean eta irizpide hobea eta arrazoituagoa izan bitartean, ez dirudi beharrezkoa, egokia edo gomendagarria denik Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko gisa aldatzea haren eraketa.

BIZKAIKOAREN ALEGAZIOA

Bizkaikoa erakundeari Aurrekontuei buruzko abenduaren 26ko 572006 Foru Arau Orokorraren 4. artikuluan ezarritako Foru Enpresa Erakunde Publikoaren izaera juridikoa ematea tresna egokitzat jotzen da, pertsonalaren esparrutik bereziki emandako baldintzatzaileen aurrean dagoen eskaria betetzeko, haxe baitzen erakundea sortzean etorkizunari begira zegoen ikuspegia: erakunde horretan giza baliabide gisa sartzea une batean kulturako foru sailari atxikitako foru funtzionarioak edo foru erakunde erantsietako lan-itunpeko pertsonal gisa (hasieran Rekalde erakusketa aretoa, S.L.), eta halaxe gertatu da erakundearen orain arteko jardunean.

Baztertu egin ziren zenbait figura juridiko hala nola nortasun juridiko pribatua (merkataritza erakundeak edo fundazio pribatuak) edo izaera juridiko administratibo publikoko batzuk edo foru erakunde autonomoak, ez zirelako egokitzen planteaturikoa bezalako foru enpresa erakunde publikoaren beharretara eta gaitasunetara.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

ANS	Acuerdo de Nivel de Servicio.
BOS	Bilbao Orkestra Sinfonikoa.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
CEBEK	Confederación Empresarial de Bizkaia
DF	Decreto Foral.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
Elkarkidetz	Entidad de Previsión Social Voluntaria Elkarkidetz.
EPEF	Entidad Pública Empresarial Foral.
IFAS	Organismo Autónomo Foral Instituto Foral de Asistencia Social.
IRPF	Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LAE	Loterías y Apuestas del Estado.
NF	Norma Foral.
OOAA	Organismos Autónomos.
PCAP	Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.
SAAD	Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia.
SCR	Sociedad de Capital Riesgo PYME.
SPE	Sector Público Empresarial.
THB	Territorio Histórico de Bizkaia.
TRLCSP	Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.
TRNFGP	Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria, aprobado por Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre.
Udalkutxa	Fondo Foral de Financiación Municipal.
UPV	Universidad del País Vasco.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/Herri Kontuen Euskal Epaitegia, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en su Programa Anual de Trabajo, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del THB correspondiente al ejercicio 2017.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: en las áreas presupuestaria, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, compras y servicios, concesión de subvenciones e ingresos de derecho público.
- Contables: se analiza si las cuentas del sector público foral se elaboran de conformidad con los principios contables que resultan de aplicación.
- Análisis financiero de la situación económica del sector público foral.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas en la gestión y el control interno, se detallan en el epígrafe “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

La Cuenta General del THB se forma mediante las cuentas de la Diputación Foral de Bizkaia, del Organismo Autónomo Foral Instituto Foral de Asistencia Social y del Sector Público Empresarial (ver Cuenta General del THB en www.bizkaia.eus).

El detalle de las entidades públicas empresariales forales, de las sociedades mercantiles forales y de las fundaciones forales que componen el SPE es:

ENTIDADES PÚBLICAS EMPRESARIALES FORALES

ENTIDAD	OBJETO
1. Delegación en Bizkaia de LAE	Delegación en Bizkaia del Organismo Nacional de Loterías y Apuestas del Estado.
2. Instituto Tutelar de Bizkaia	Ejercer la tutela de mayores incapacitados legalmente, residentes en el THB, y la administración de los bienes de los menores tutelados por la DFB.
3. BizkaikOA EPEF	Gestión de actividades dirigidas a la difusión del patrimonio cultural, gestión integral de museos, de infraestructuras y difusión del patrimonio arqueológico.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SOCIEDADES MERCANTILES FORALES

SOCIEDAD	% PARTICIPACIÓN	OBJETO SOCIAL
1. APARKABISA, Bizkaiko Garraio Gunea, A.B. Centro de Transportes de Bizkaia, S.A.	79,59	Centro de transportes y aparcamiento de camiones.
2. Azpiegiturak, S.A.U.	100	Proyectar, construir, conservar y explotar obras públicas de infraestructuras de todo tipo.
3. Bizkaiko Basalan, S.A.U.	100	Trabajos forestales y de conservación de la naturaleza.
4. Beaz, S.A.U.	100	Desarrollar y fomentar la competitividad en las empresas, para hacer de Bizkaia un territorio innovador, creativo, dinámico y emprendedor.
5. Euskalduna Jauregia Palacio Euskalduna, S.A.U.	100	Construcción y gestión palacio de música y congresos.
6. Garbiker, A.B. (S.A.U.)	100	Tratamiento de residuos sólidos.
7. INTERBIAK, Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, S.A.U.	100	Realización de estudios y proyectos, construcción y conservación de infraestructuras viarias.
8. Lantik, S.A.U.	100	Servicios informáticos de la administración foral.
9. Seed Capital de Bizkaia Sociedad Gestora de Entidades de Inversión de Tipo Cerrado, S.A.	50,64	Gestión de patrimonios y fondos de capital-riesgo.
10. Seed Capital Bizkaia Mikro SCRP, S.A.	66,67	Desarrollo de la microfinanciación.
11. Zugaztel, S.A.U.	100	Grabación, escaneo y call center.
12. Crowdfunding Bizkaia, Plataforma de Financiación Participativa, S.L.U.	100	Poner en contacto vía web personas inversoras y promotoras para proyectos de inversión participativa (*)
13. Sestao Bai, S.A.	60,74	Promoción y desarrollo de actuaciones urbanísticas (**)

(*) Sociedad constituida en 2017.

(**) A 31 de diciembre de 2017 DFB participa en su capital social a través de Azpiegiturak S.A.U.

FUNDACIONES FORALES

FUNDACIÓN	% PARTICIPACIÓN	FIN FUNDACIONAL
1. Azkue	75	Impulsar el euskera aprovechando la tecnología y desarrollar proyectos, acciones y materiales digitales en euskera.
2. Biscaytik	100	Impulso del conocimiento en las tecnologías de la comunicación, a fin de potenciar el acercamiento on-line de la ciudadanía.
3. Bizkaia-Bizkaialde	100	Promoción y desarrollo del deporte vizcaino, con prioritaria atención al deporte de rendimiento.
4. Juan Crisóstomo de Arriaga-BOS	66,67	Dirección, mantenimiento, conservación y promoción de la Orquesta Sinfónica de Bilbao.

De acuerdo con lo establecido en la disposición adicional séptima del TRNFGP, la Cuenta General del THB incluye a título informativo un anexo con el Balance y la Cuenta de Pérdidas y Ganancias del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia. Estas Cuentas no son objeto de fiscalización en este Informe.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

1. La DFB considera que según su Plan de Recursos Humanos, las primas a la jubilación voluntaria, incapacidad permanente y renuncia a la condición de empleado público abonadas en 2017 a 101 empleados por un importe total de 3,4 millones de euros, son rendimientos del trabajo exentos de IRPF. El Plan no acredita la existencia de las causas que, según el artículo 51 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, permitirían asimilar dichas actuaciones a los despidos colectivos y despidos o ceses por causas objetivas, cuyas indemnizaciones, en el caso de las Administraciones Públicas, sí están exentas según el artículo 9 de la NF 13/2013, de 5 de diciembre, del IRPF.
2. La DFB y el IFAS, con el fin de devolver la deuda por pérdida de poder adquisitivo de los ejercicios 2012-2013 recogida en el artículo 70.4 del Acuerdo para el personal funcionario y en el artículo 92.4 del Convenio para el personal laboral, han incrementado el complemento específico de todo su personal un 1% de las retribuciones de cada puesto en 2016. Esta asignación supone una alteración de la naturaleza del complemento específico establecida en la normativa de función pública. La DFB ha abonado 1,4 millones de euros y el IFAS 438.514 euros, aproximadamente.
3. Seed Capital de Bizkaia, S.A. ha realizado un contrato indefinido sin que existiera plaza de plantilla vacante en el Presupuesto del ejercicio incumpliendo el artículo 29 de la Norma Foral 7/2016, de 27 de diciembre, de Presupuestos Generales del THB para el año 2017.
4. Seis Entidades del SPE han contratado el suministro de energía eléctrica (722.657 euros), BizkaiKOA EPEF el servicio de atención al público de las salas Ondare y Rekalde (96.234 euros), Bizkaiko Basalan, S.A.U. el servicio de tala y retirada de arbolado (212.355 euros), Palacio Euskalduna, S.A.U. el suministro de gas (163.804 euros), Garbiker, S.A.U. otros servicios y suministros (610.308 euros), sin respetar los principios de publicidad y concurrencia (ver A.10.2).
